

—Agur Zuberoa—

Txomin Peillen Karrikaburu

AGUR ZUBEROA



Biba Xiberua! Elkartea

2001

Urretxu-Zumarraga

—Gipuzkoa—

Aurkibidea

Txomin Peillen: jakintsu alegera [\[>>\]](#)

KOLDO GOITIA

AGUR ZUBEROA [\[>>\]](#)

Historia laburra [\[>>\]](#)

Zuberoaren etsaiak eta adiskideak [\[>>\]](#)

Bearnes jendeekin harreman onak [\[>>\]](#)

Beste auzoak: manexak, nafartarrak [\[>>\]](#)

Zuberotarrek beren buruak nola ikusten dituzten [\[>>\]](#)

ZUBEROAKO ALDERRIAK [\[>>\]](#)

Basabürüa [\[>>\]](#)

Petiarra [\[>>\]](#)

HIZKUNTZA ETA JENDEA [\[>>\]](#)

Zuberera [\[>>\]](#)

ZUBEROAREN EKARPENA KULTURARI [\[>>\]](#)

Zubererazko literaturak [\[>>\]](#)

XV. mendeko erez zaharrak [\[>>\]](#)

Txikitoak [\[>>\]](#)

XVI. mendeko esaera zaharrak [\[>>\]](#)

XVII. mendea [\[>>\]](#)

XVIII. mendea [\[>>\]](#)

XIX. mendea [\[>>\]](#)

XX. mendea [\[>>\]](#)

Jon Mirande [\[>>\]](#)

Junes Casenave [\[>>\]](#)

Jean Louis Davant [\[>>\]](#)

ZUBEROTAR ETA EUSKALDUN NOIZ ARTE [\[>>\]](#)

Bibliografia [\[>>\]](#)

—Agur Zuberoa—

Liburu hau (paperezko bertsioan) Urretxu eta Zumarragako Udalen laguntzaz argitaratu da.



Urretxuko
Udala



Zumarragako
Udala

Azala eta barruaren diseinua:
Concceta Probanza

Azaleko irudia:
Xabier Larraza Gorrotxategi

© Txomin Peillen.

© Biba Xiberua! Elkartea. Urretxu-Zumarraga —Gipuzkoa—
Galarazita dago liburu hau ez irakurtzea, osoa nahiz zatika,
edozein aitzakia jartzen delarik ere. Hemen idatzitakoak
gustatu eta beste nonbaitera aldatu nahi dituenak, giza legez
jokatu eta baimena eskatu behar dio egileari. Mila esker.

ISBN: 8-607-2448-4


Legezko Gordailua: S.S. 526/01

Paperezko aleen inprimatzailea: ITXAROPENA, S. A. Araba
kalea, 45 – Zarautz.

—Agur Zuberoa—

Zuberoa han dago eta gu hemen. Biak elkarganatzera dator Txomin Peillen. Ikusi du ondo baino hobeto, urteetako ikerlan sakon zehatzez, lurralde hura zer den. Zer hango jende, zer hango lan, zer hango aide. Eta lehenago zer izan zen. Gure mesedetan hartu du luma, hartu du papera, eta arduraz izkiribatu dizkigu argi, txukun, Zuberoaz jakin behar genukeena lehenbailehen. Irakur dezagun, ikas dezagun, guretzat, zuretzat idatzi duena. Ordu da hasteko zuberotarrak direnaz jabetzen. Eta beraien erakutsiz, umorez etorkizuna kantatzen.

BIBA XIBERUA! Elkartea



Txomin Peillen: jakintsu alegera

Txomin Peillen Karrikaburu (Paris, 1932). Zalantzarik gabe egun Euskal Herrian dugun jakintsurik sendoenetakoa. Euskal nazionalismoa eta kultura-berpizkundera ikuspegi zorrotz batetik aztertu ditu. Pentsalari kritikoa, baserriak eta herri giroak euskal kulturaren zuten gehiegizko protagonismoa errefusatu euskal topikoak bere lekuan jartzen saiatu da gaztetatik (batez ere euskaldunen berezko garbitasuna eta kristau zintzoa izateko bokazioa). Jon Mirande eskuin-muturreko idazle paristarrarekin bat egin zuen (ideologi mailan desadostasunak izan arren) eta "Igela" aldizkaria argitaratu zuten gainontzeko euskal agerkarietan kaleratu ezin zituzten idazlanak hedatzeko. Euskal literaturari sakristia usaina kentzeko ere sortu zuten "Igela" eta euskaraz egin izan den benetako lehen *fanzinea* dela esan daiteke, Parisen, kontrakultura eta abangoardiako mugimendu sozialen sorguneetako batean atera baitzen 1962an. Gainera baliabide urriekin kaleratua izan zen, tirada motza zuen eta bertan gai zehatz batzuk lantzen zituzten (umore beltza, literatura ezezaguna, erotismo gaixtoa, ...); euskal literaturaren berritzaile amorratuak, beraz.

Pariseko Sorbonan biologia ikasi eta lizentziatu ondoren, irakaskuntzari heldu zion eta aldi berean, euskal kultur jende zenbait ezagutzen hasi zen. Andima Ibiñagabeitiak, Pariseko euskal erbesteratuen artean euskal kultura suspertzen gartsu ari zen idazleak, sekula ahaztu ez zuen gomendioa eman zion: "lehenengo ikasi euskara eta gero ikusiko duzu abertzalea zaren edo ez". Izan ere, 1936ko gerra zibilaren ondoren erbesteratuetako hainbat euskal nazionalistek gehienbat gaztelera erabiltzen zuten euren bilera, hitzaldi eta aldizkarietan. Horrela, Peillenek bere euskara, zuberera, berriro ikasi zuen, gurasoetatik jaso eta ia ahantzia zuen zuberera. Beste hainbat euskalki ere menperatzera iritsi zen. Gaur den egunean poliglota izateko ahaleginari tinko eusten dio eta hainbat hizkuntzatan moldatzeaz gain, gaskoina eta Okzitaniako hizkerak ezagutzen ditu. Idatzi, kontakizunak bildu eta Zuberoako herri jakintza eta usadioak ikertzeaz arduratu da, urteen poderioz euskal letretan aditu eta sona handiko etnologo bihurtu den arte Bere kultur ekoizpena zabala da hogeita hiru liburu eman ditu argitara (nobelak, ipuinak, kontakizunak ...), hiztegi gintza lan garrantzitsua egin du, artikulua eta kolaborazio andana utzi digu eta euskal literatura departamentuaren sortzaile izan da Baionako Unibertsitatean (esku *beltz* batek "halakorik bada ala?" margotu zion frantsesetik atean); horretaz gain, hitzaldiak eman ditu han eta hemen, euskal amodiozko abestiak bildu, pastoralak ikertu, Zuberoako historia eta pertsonaia famatuaren arrastoa jakitera eman, euskal animismoa aztertu, euskararen aberastasun ezkutuenak bilatu (euskaraz hizketan egiten ohi ditugun ñabardurak), ikasleei euren tesina eta ikerketak prestatzen lagundu.. Hitz bitan, Peillen kultura-eragile peto-pettoa dugu.

Dena dela, trebezia handiena solasaldietan antzematen zaio: berarekin hizketaldi bat egiteko aukera izanez gero jakituriaren edozein esparrutan murgil gaitzke eta ez da zaila kanta nahiz olerki artean amaitzea, bizi-poza berehala agerian jartzen baitu. Gaur egun, Zuberoako historia, euskalkia, pertsonaiak edo kultur jardunbideak ikertu nahi izanez gero, ezinbestekoa da Peillenen aholkuak gogoan izatea. Era berean Jon Mirande idazlearen lagun mina zelarik, haren kezka intelektual eta izaera berezia jakitera eman ditu, haren obrak bilduz eta euskal literaturan Mirandek duen lekua aldarrikatuz.

—Agur Zuberoa—

Azken urteetan Txomin Peillen arduratuta eta arranguraz azaldu zaigu komunikabideetan, bere lanak ez baitu merezitako oihartzunik izan (hainbat egilek ez dute aintzat hartu). Duela hiru urte unibertsitatean erretiroa hartu zuen arren, euskaltzain dihardu eta, aldi berean, gartsuki defendatzen ditu bere lanak; egungo zentsura berriak eta ezer gutxi eginda berehala sona handia eskuratu dutenen jokabidea salatu. Ateismoa, antimilitarismoa, gaurko gizartearen azaleko itxura-ona eta erresumina eragiten duten hainbat gaien gainean hausnarketa biribilak egiten ditu zenbait agerkaritan. XXI. mendean sartu garen arren, bere hainbat lan argitaratzeko aukeraren zain dago oraindik. Gaurko egunean bere emazte Marie Thérèse-rekin batera Baionako unibertsitate ondoan bizi da, artelan eta liburuz beteriko etxe handi eta eguzkitsu batean.

KOLDO GOITIA

—Agur Zuberoa—

AGUR ZUBEROA



—Agur Zuberoa—



Agur Zuberoa

Euskal Herriko eskualde txikiena Zuberoa da 760 kilometroko zabalerarekin. Askok uste dute ibar bakarrekoa dela baina *Uhaitz* basa ur nagusitik kanpo beste hiru ditu, *Josibarra* eta *Lauzeta* ibarra ekialdetik daude, urak Biarnoko Oloronera doatz, *Apoura* edo ibar eskuina mendira begira eskuinetik, mendebaldetik dago eta urak *Uhaitz Handira* doatz, *Iratiko* urak Zuberoan jaio eta Nafarroa zehar, Arga ibaiera eta gero Ebrora joaten dira. (ikus mapa)

Herri menditsua Zumarraga Legazpi aldea bezala, nahiz mendi gorenak 2.000 milatik hurbil edo gorago dauden. Alderri menditsuenari Basaburu deritzo. Muño apalekin (400-800 m) dagoen herrialdea Pettiarra edo Peko Ibarra. Ur ondoetan badira azken zati hortan bi kilometro zabaleko lur eremu zelai onak ur ertzetan. Bi alderriak euritsu dira: Beko aldean urtean metro bat, eta mendian 2 metro ur eta elur.

Historia laburra.

Erromatarren garaian, *Subilate* jendeak hor bizi zirela kontatzen digute. Erdi Aroan erdaldunek *Subola* eta zuberotarrek *Zuberoa* izenez ezagutzen zuten. (XIX.mendean agertu ziren *Ziberoa*, Xiberoa formak) Santxo Handiak eta Alfontso borrokariak Gaskoinia eta Nafarroa antolatu zutenean Zuberoako bizkonderria sortu zuten. Nafar loturatik, Gaskoiniara igaro zen, gero Ingalaterrako koronakoa izan, baina beti, Nafarroak iraun dueno, errege nafarrari zin bakuna egiten zioten zuberotarrek. Zuberoaren gorabehera handienak izan ziren bearnes auzoen inbasioak, lapurketa, lur lapurtzeak. 1449.an bearnesez herria indarrez hartu eta Frantziari 1474.an saldu zuten. Zuberotar multso dexentea protestante egin zelako XVI mendean erlijio gerrateak gertatu ziren. XVIII. mendean Frantses Iraultza burges zentralistarekin Zuberoak jadanik Borbonek murriztu foruak, eta herri nortasuna galdu zuen, berriro aspaldiko «auzo onekin» frantses «departamentu» batean lotuz.

Zuberoaren etsaiak eta adiskideak.

Bai, XI eta XII. mendeetan Alfontso borrokariak eta Santxo handiak, Zuberoa antolatzen lagundu zuten. Horregatik eta bostehun urteez zuberotarrek nafar erregeari *zin bakuna* egingo zioten. Zin hori bizpahirutan gure herritarrei baliatu zitzaizen, auzo herria Biarno erdalduna (euskaldun izana) Zuberoaren Iparraldetik eta Ekialdetik dagoenarengandik babesteko. Hango bizkondeak bekaitzez, mendeetan Zuberoaren jabetu beharrez ibiliko dira. Egia da Zuberoako goimendietan «bortuan», sekulako baso ederrak eta ardi larre zabalak daudela. XI. mendean bearnesek herria okupatu zuten. Erramun Gillen I.a orduko Zuberoako jauna borrokatu zen eta Nafartarrek gure arbasoak askatu, baina gerra haietan Zuberoak Sarraltzüne ibarra, orain Barlanes dena kendu bi auzi irabazi eta hiru galdu ondoren. Mauleko Iparraldetik ere lau herrixka, Arriba, Azpilda, Taballa, Uzkaïne bearnestu. Beste horrelako bat gerta ez zedin Alfontso borrokariak, Nafarroa eta Aragoi erregeak, Garzion bizkondearentzat Mauleko gotorleku den gaztelua eraiki zion. Santxo Handiak Zuberoa antolatu eta Gaskoniako dukerrian jarri zuen bere ahideen agintepean utziz.

XII. mende azkenean Zuberoa Ingalaterrako koronara igaro zenean ingelesek, dirua gogoan, XIV. mendean Iparralde guztian eta Maulen ere, bearnes funtzionariak eta komertziantek sartu zituzten. Maule hiribildu txikia zen, gaztelua, merzenarioak, bizkondearen lekua genuen, baina Leixtarre zen hiriburua, eta Barkoixekin biak, Maule gotorlekua baino jendetsuago ziren.

XV. mendean berriro itzuli ziren, Biarnoko bizkondea buru, gaskoiak Zuberoaz jabetzera. Frantziako erregeak Ingalaterrako eskubideen aurkako bere ehunurteko gerretan gaskoiek egin gastuak ordaintzeko Zuberoa har zezaten utzi. 1449.an 600 soldado 15.000 omen ziren gaskoi eta bearnesei errenditu ziren. Zina gogoan, Nafarroari dei egin zuten, Mauleko gobernadorea Leringo Gillen Beaumontko nafar kondearen semea zelako, Alferretan, Nafarroako erregina frantsesa zelako, ez zen joan Frantziako eregearen tratuaren aurka. Horrela idatzi zuen Jean Chartier orduko frantses erregearen historilariak.

Hogeita hamar urteez bearnesek Zuberoa hustiratu zuten eta zuberotarrek asperturik Frantziako erregeak Karlos VII.ak 1479.an berriro erosi zuenean, isilik egon. Azkenean zuberotarrek amor eman zuten, autonomia eta forua gordez, 1510.an Frantziako erregearen etxe jabetasun bilakatu zen herria.

Bearnes agintarien maltzurkeriak ez ziren horretan geratuko; handik berrogei urte Biarno protestantismoa nagusitu zen eta Zuberoan nekazari eta ongi eskolatu batzu harretaratu. Labriteko Joana nafar erregina protestante bilakatu zenean, bere Montgomery generala bidali zuen Zuberoako katolikoen aurka, eta bearnesek Santa Graziko komentua erre. Erregina protestanteak gure «auzo on» delakoei eskerrak emateko Santa Graziko larre eta basorik ederrenak Areta, Aramitze eta Inhaziko herriei eman zizkien eta bearnesak berriro katolikotu zirenean ez itzuli. Erregina baten erabakia hautsi nekeza delako, zuberotarrek beren auzi guztiak 18. mendean eta 20.mendean galdu zituzten.

Bearnes politikariak, ordea, bizkondeen jokabideak jarraituz ez ziren horretan egon. Jadanik XVII. mendean Santa Graziko zergak Leirekoak zirenak, Oloroneko bearnes apaiztegiak hartu zituen. Txarrena gertatzekoa zen, XVII. mende erditan Peyre izeneko bearnes merkatari aberats batek Iruriko etxe noblea erosi zuen eta erregeari kolektibo ziren Zuberoako mendi lur guztiak. Urrunago auzien kapituluan ikusiko dugu, ehun ta berrogeitahamar urtez Zuberoak zer neke gorriak ikusi zituen bereak zeuzkan lurren birerosi beharrez.

Baina inperialismo eta errealismo eraginkor horrek ez du azkenik, ez eta euskaldun agintarien ahulezia harrigarriak bazterrik. Frantses iraultzaren garaian, departamentuak sortu zirenean, ahobatez Iparraldeko gure arbaso euskaldunek eskatu zuten beren euskal departamentua egitea. Pariseko Lege Biltzarrean 1790 eko otsailan Oloroneko apezpikua zegoelako, ikusi zuen benefizio batzuk galduko zituela, eta haren eta bere adiskideen ezezkoarekin ez zen Euskal Herri departamenturik egon. Berrehun urtez 9 aldiz eskatu arren, bearnes politikari trebeen iruzurrekin, beti ezezkoa. Eta departamentu horrekin, euskaldun zaldia bearnes behiarekin lotua hinki-hanka dabila.

Noski, azken berrogeitahamar urteetan euskaldunen emigrazioaren bidez, bearnesak, jendeez euskalherriarrak baino gehiago direlako, departamentuko kontseiluan beti jakin dute berengana diru tiratzen. Sokatira horretan 21 hautetsi euskaldunek zer dezakete 32 bearnesen aurka. Jadanik 1939.an herrixka guztietan errepideak zeuden eta euskaldun mendietan oraindik, maiz lurrezko bideak.

Bearnesek Lacq herrian gasa aurkitu zutenean, eta Zuberoak eskatu erostea, ezezkoa izan zuten eta Nantesera, La Rochellera joan zen gasa. Zer auzo onak!

Ofizio Ganbera guztietan bearnesak nagusi dirade. Nekazaritza Ganberan, aurretik eskainu desoreka dagoelarik, eta euskaldunen nekazaritza helmuga ez delako bearnesena, euskaldunen egitasmoak ez dira pasatzen. Halaber ofizio ganberan. Zuberotarrek, euskaldun guztien moduan, gehiengoz beren nekazaritza eta ofizio ganbera bereziak nahi lituzkete. Alferretan demokrazia Parisek agindua eta prefet-gobernadoreak zaindua da.

Zorionez Baionak aspaldidanik bere Industria eta Komertzio Ganbera zeukan baina Zuberoa Paueko ganberarekin lotu ziguten. Zuberotarrek nola bearnesek enganatzen zituzten ikusi zutenean, Baionako Ganberari lotzea lortu zuten eta horrek industria berrien sorreran eragin ona izan du.

Gure auzo gaskoi eta bearnesek euskaldunen beldurrez eta erdainuz gutaz, kolonialistek mairuez kontatu ohi zituzten gorrotozko txiste txarrak, euskaldun basati atzeratu tontoez egiten dituzte (hizkuntza dela, ikastola dela, abertzaletasuna dela). Zuberoan bat baizik ez da kontatzen bearnes agintariekin izan ditugun harremanen eredu.

—**Zergatik diogu bearnesak eta gaskoiak krokodiloak direla?**

—«**Ahoa handi, haginak zorrotz eta aztaparrak motz» dituztelako.**

Ahoa handi. Abokatu handi eta trebe arraza. Frantziari bi minixtro handi gutienik emanak Bérard eta Barthou. Euskaldunek ez dakigun gisa erretorikaz jendeen bereganatzen dakite.

Haginak luze. Bai Biarnoko Konde soberano, minixtro eta apezpikuek, Zuberoako lur eta zergez jabetzen jakin dute.

Atzaparrak motz. Ezen agintzen oso onak baldin badira, eskuak ez dituzten — nekazari ez direnek— lanean zikintzen. Gure herrixkako karteroa harriduraz zegoen nola ni funtzionario izanki baratza egiten nuen, berak bere karguarekin komeni zitzaion bezala, ez zuen porru bat ere landatzen.

Gasze garaian baserriko bearnes neskekin hitzegiten nuenean, ordea, jakin nuen euskaldunek zer fama txarra geneukan —eta surik gabe nekez kea badago—alegia ezkongabea neska mutilak sexu harremanak genituela eta ezkontza aurretik ume asko jaiotzen. Egia da, lehen eta orain ezkontz-saioak Ipar Euskal Herriko baserrietan eta hirietan gure ohiturak direla.

Bearnese jendeekin harreman onak.

Noski zuberotar eta bearnese jende arrunten artean, gauzak, politikariekin baino hobeki joaten ziren. Zuberoan kokatu bearnesek gure artzain herri honetan beren komertzio eta eskulangintza teknikak ekarri zizkiguten. Zuberoan oinarrizko nekazari tresnez kanpo, garai berriagokoak, beren jatorria salatuz, orain ingelesarekin gertatzen den moduan, orduan bearnese izenekin sartu ziren.

Zuberoako etxegintza XVIII. mendean aldatu zen. Lehenago etxe bizitzak ikuiluen gaintik egiten ziren. Teilatuak (zubereraz *hegatzak*) zur oholez edo harriz estaltzen zituzten. Bearneseekin pirineotar etxe moldea sartu zen. Etxea, arditegia eta behitegia eraikiz, bi ikuiluez bereizi zen. Eta «teilatua» ez teilaz baina arbelez estali.

Garai haietan negua Gaskoiniako landetan artzain pasatuz zuberotarrak konturatu ziren bearnesek Ipar Europako teknikak laster ikasten zituztela. Beren kultura eta agrikultura hobetzeko herrixehean «populuan» ohitura bat jarri zen, *haur ordezkatzea hizkuntza ikasteko*. Euskaldun haurra Biarnora joaten zen hango hizkuntza erromanikoaren ikastera, frantsesa inork erabiltzen ez zuelako herri xehean eta okzitanoa Frantzia hegoaldean milioika jendeek hitzegiten zutelako. Denbora berean hango teknikak ikasten. Alderantziz bearnes umea euskaldun familiara etortzen zen, euskaldunek artzain on fama zutelako. Ohitura horrek zubererari, teknika munduan, bearnes jakituri eta hitz franko eman dio.

Beste auzoak: manexak, nafartarrak.

Auzoez gaizki esatea herrixka guztien kirola izan ohi da. Zuberotarrak gure artean ez gara oso onak. Manexez (Benafarroako jendeez) esaten da «*Manexetik ezta aize honik, ez emazte honik heltzen*»

Halaz ere frantses iraultza garaian zuberotarrek nahiago zuketzen manexekin departamentua sortu, ezen ez bearnesekin.

Nafartarrez, zuberotarrek iritzi aski ona dute. Nafartarrak jende zintzoak, esku garbiak, ohoredunak dira, baina xinpleak eta iruzur-errezak. Halaxe agertzen dira ipuinetan eta XVIII-XIX. mendeko astolaster izeneko zuberotar fartsetan. Bai, nafartarra zuberotarraren argazki negatiboa da.

Gorago, batzuetan nafartarrek bearnesengandik askatu gintuztela ikusi dugu. Artzainen arteko gatazkak egon ziren, noski, nahiz hego Nafarroan nahiz Garaziko ipar nafarrekin, artzainen mugak zirela-eta, baina fazeria bidez konpondu ziren. Erronkariko nafartarrek bearnesekin zituzten eduki istillu odoltsuak, San Martin Harrian urtero uztailan ospatzen direnak.

Zuberoak nafartarrekin ekonomia harreman onak izan zituen. Idigurdiak Larrainetik Otxagabiaraino mendia igarotzen zuten. Egia da Zuberoak ez duela ardo on asko ematen ez eta nahikoa gari eta Nafarroak, bai. Hain zuzen zuberotar ipuinak dio:

«Behin Kristo Ebro ertzean zegoen. Zubirik ez zegoen. Ibirik ez. Urak handi. Nafartar batek uraren bestaldera igarotzea eskaini zion eta bizkarrean hartu-eta egin. Beste ertzean egon zenean Kristok esan zion nafartarrari. Zuri eskerrak emateko, bi boto beteko dizkitzut. Eta Nafartarrak esan «Nafarroarentzat nahi nuke, ardoa, ogia eta bakea» Eta Kristok erantzun zion «Bi esan dut» eta geroztik Nafarroak gari eta ardo badu, baina bakerik ez». Bai zuberotarrek ogiarena eta ardoareana bazekiten.

Halaxe Frantses Iraultzaren bezperan, Pariserako joateko ordeztu, Zuberoako Batzar Nagusia Lextarren biltzen zen. Erabaki zuten Nafarroa aldeko merkantzien zergak kentzea, handik ardo eta gari ona zetorrelako eta Biarnoko aldetik mantentzea, herri horrek ez baitzuen uzta onik bidaltzen. Zuberotar ameslariek ez zekiten azken aldiko biltzen zirela, eta haien erabakia ezertarako ez zela, Parisek zuzenean Zuberoan aginduko baitzuen eta azken foru puxkak kenduko.

Zuberotarrek beren buruak nola ikusten dituzten.

Zuberotarra pikaro. Zuberotarrak beren buruekin ez dira batere eztiak. Horregatik, agian, euskal gizartea gogorki jorratu duen lehen aldizkaria *Igela*, bi zuberotarrek sortu zuten. Zuberotarra herriko ipuinetan maltzurra, iruzurrari, kontrabandoari, eta auziari emana da, alegia zuberotarrek beren buruak pikarotzat jotzen zituztela eta ihautiriko maskaradetan hasi-eta, astolaster fartsetan edo Etxahun-Barkoixekoaren satiretan gogorrak gara. Hona ipuin laburra

Zuberotarrak andreari. Ekarzu pertza!

Bai gizona. Erosia ala ebatsia (lapurtua).

Artzainak mendira mandoz joaten ziren, baina Barkoixtar hantusteak zaldiz. Eta behin hola barkoixtar harroa beste artzaina lagunari esan zion:

«**Ikusi düka zaldi horrek zer karga ekarri, dian?**

«**Bai, bai.**

«**Eta horrez kanpo gizon bat bizkarrean.»**

«**Eta non da gizona?**

Zuberotarra harro.

Zuberoaz eta Euskal Herriaz, euskaraz, XVIII. mendean gehienik idatzi duena Jusef Egiategi euskal filosofoa da. Egiategik bere garaiko gizartearen bilakaera begi zorrotzez zekusan, ezkontzeko dote handiak eskatzen ziren, eztei handitan dirua galtzen, eta zorretan jartzen harrokeriaz itxurak emateko. Gaur ere gure euskaldunen artean, eztei handien ohitura dago.

Zuberotarra auzikari

Jusef Egiategik, jadanik XVIII. mendean dio auziekin Zuberoa argaldu dela eta abokatuak gizendu:

Errazü Zuberoa herri hain kutoa (escueto), zonbat abokatü eta prokuradore zure bizian düzün gizentü eta zonbatez hek zütien ahüldü.

Hamazapigarren menderaino Zuberoan bertan eta forua jarraikiz, herrietan alkateek konpondu ez zituzten arazoak, Leixtarre herrian ematen zen aitonensemeen justiziak garbitzen : horregatik auzi guti zegoen. XVII. mendean frantses sistema gaineratu zitzaion eta deiegitea, Bordelen egiteko ohiturarekin, kontratuak, auziak, alegia paperkeria guztiak herrian sartu eta metatu.

Baserrri munduan ez da harritzekoa muga arazoak izatea, auzoaren abereak zure lurretan sartzea, bide baten erabilera oztopatzea, baina XVII. menderaino lehenik alkateak eta gero Zuberoako justiziak konpontzen zituen. Handik goiti Arlande Oihenart euskal idazleak ulertu zuen, barberuek kanposantuak betetzen eta abokatuak diru boltsak betetzen zituztela. Egiategik berdinxka dio:

Doktor gazteak dütü hilherriak bizkartzen eta abokatu ezjakintsüak auzikarien moltsak ordokitzen.

(Bigarren liburua, argitaragabea, Euskaltzaindiaren eskuetan)

Eta jarraitzen du: «**Auziak dirade zerütik jendeari azoteak. Zainak dütie zinez barna (txit sakon) senar emaztetan, haurren aita ta ametan, suhiaren ta aita-amagiharrebetan, anaie arrebetan, ahizpa ta ahizpetan. Hitz bakoitz auzien ate maradikatua da, parropia güziak ta etxe hobenean ezkarradate obratü düana»**
(Bigarren liburua, argitaragabea).

Auzien iturri nagusia, lurren jabetasun kolektiboa izan da. Ikusi dugu santagraztarrak alferretan saiatu zirela bearnesek hartu lurren bireskuratzera, baina handiagoa izan zen Zuberoako lur amankomunen etorkizuna. Zuberoako forua, erregeak ezagutua, baina ez errespetatuak nahiz dion

«Larretako eta oihanetako, bazkaleku eta ezkur lekuak, urak, arrantza eta ehiza herri honetako herritar guztien elkarrekiko eskubidean daudela, antzinate zaharrenetako foruz, Zuberoa herri honetan.» (Zuberoako forua, 1520.an Hitzaurrea)

Halarik ere laster frantses erregeak bere jabetasun pertsonala dela esango du, erosi duelako Zuberoa. Eta Peyre izeneko jaunari, ikusi dugun bezala lurrak emango dizkio; baina Peyre horrek soberano izateko nahia agertu zuenean erregeak lurrak kendu zizkion eta orduan Luis XIV.ak esan zien zuberotarrei betidanik bereak ziren lurrak birerosi behar zituztela. Zuberotarrak auzietan sarturik, Bordelen galdu zuten.

Auzien gastuak eta lurren birerosketarako dirua, bi bearnes baroiei eskatu zieten. Baina zuberotarrek, urte txarrak edukiz, ez zuten nahikoa goizik dirua itzuli. Baroiek Donapaleuko merkatuan hamar zuberotar gizon atxilotu zituzten, esanaz ordainduak izan ondoren askatuko zirela. Orduan Goihenetxe «Matalas» izeneko abade batek, 1661.an herri armada txiki bat altxaturik Mauleko gazteluaz jabetu zen. Apez horrek uste zuen, protestanteak persegituz, haien bil lekuak errez, erregeak bere jazarpena onartuko zuela; baina gerrilla on bat egin ondoren, leku irekian guduka egitea onartu zuenean, frantses erregearen zaldizkoek garaitu zituzten Matalasen gizonak. Matalasi lepoa moztu eta haren bi kide zintzilikatu.

Frantses iraultzak Zuberoari ekarri zion onura handiena izan zen, erregearekin herriak zeukan zorra kentzea; baina lurrak berrogei urteez jaberik gabe egon ziren eta artzainen artean eztabaidak sortu. Egia da XVIII. mendean Zuberoako jendea bikundu zela eta Beko aldean, Petiarrean lur kolektiboak nekazariei eman edo saldu zirela?

Zuberoako Artzainen Sindikata sortu zen lur kolektiboen eskuratzeko eta kudeatzeko 1838.an. Basaburuan, ordea, XIX.mendean goimendietako lur kolektiboek jabetu ziren herri gehienek Sindikatari itzuli zituzten. Larrainek aldiz, beste lur guztiak bere katastroan zeudelako, auzitan sartu zen orduko Zuberoako beste 52. herrien desjabetzeko.

Ehun ta berrogei urteez iraungo dute Larrainen auziek, noizpeinka isilduz eta noizpeinka berpiztuz. Azken auzialdia, frantses anarkista batek, Pasture izenekoak, piztu zuen. Garai harretan idatzi nuen auzietan sartu baino lehen, Zuberoak jabetza titulu zuzenak izan arren, Larrainen beharrak kontutan hartuz, lur kolektiboetarik zerbait eman behar zitzaizela. Denak gor. Berriz abokatuak gizendu ziren. Egia da ere Zuberoako Sindikatak kolektibotzat ematen zituen lurrak ez zirela denak bereak. Esate baterako XIV mendean hasi-eta Betzülako mendia Larraineko artzainek alokatua zen. Jabea Leireizan zen, baina inoiz ez Zuberoa. Horregatik duela bospasei urte Larraineri jabetasun hori ezagutu zitzaion eta bidegabekeria zuzendu.

Sua berotu zuten egurrak, bi izan ziren. Lehenik Larraineko mugetan eta Zuberoako jabetasun lurretan Iratiko turismo herrixkako txaleteak eraiki ziren. Bestalde, gutziak piztuz, herritar guztiek basoak edo larreak baino gehiago eman zezakeela ehizak ikusi zuten, garai batean, modan jarri zen mendateen alkilatzea usotegen egiteko. Zuberoako kolektiboak alkilatzen zituen lekuak Larraineko batzuk deseginik, errepideak iltzez beterik, ihiztarien etxolak errerik aurkitu ziren. Noiz behinka

Larraineko alkateak, frantses agintariak hausten dituzten erabakiak hartzen ditu, orein ehiztariak Larraineko errepidetik pasatzen ez uzteko edo bere eremuan dauden Zuberotar lurretan debekuak egiteko. Erabaki horiek ez dira errepidetako iltzeak eta txaboletan suak bezain kaltegarriak. Noski mugako hiru herrihaunze, Larraine, Santa Grazi, berriki eraiki den Zuberoako amankomunitatean ez dira sartu nahi izan, auzoek beren egitekoetan sudurrik sar ez dezaten. Ez dut esan nahi Zuberoako beste herriak hiru horiek baino zuriago direnik, baina besteek asko direnen segurantza badute.

Zuberoako Sindikata zaharrak bere akatsak ditu, baina nik daukadan beldurra da, lur horiek udal bakoitzari ematen badira, Baigorri gertatu bezala, herria diru beharrean gertatuko denean, kanpotar aberatsei lurak salduko direla. Jadanik Lapurdin lurren %60 a herrian bizi ez direnen eskuetan dago.

Zuberotarrak insumiso eta boluntario.

Pikardia ez da zuberotarren monopolioa, herri behartsu eta txikien arma baizik. Etxe kontrabandoa: hobekixeago bizitzeko sasi-komertzio beltza baizik ez da. Zuberotarrek mugatar askoren moduan kirol hori praktikatu dute.

Kirol nabarmenagoa, Ipar Euskal Herri guztian insumisioa izan zen. XVIII.mendeko Frantses Iraultza burgeseraino zuberotarrek ez zuten soldautzarik egiten. Gizon guztiek «xurikan», terreilkan tirokatzen ikasten zuten eta arma etxean edukiz *milizia* konpontzen. Noski, boluntarioak Europako armada guztietan mertzenario sartzen ziren. XVIII. mendean Behe Nafarroako eta Zuberoako boluntarioekin «Légion du Royal-Cantabre» izeneko erregimentua antolatu zen.

Iraultzaren ondotik hasi-eta zuberotarrak insumisoak eta desertoreak agertzen dira. Halaxe Bonaparteren lehen urteetan Petiri Peillen, Barkoixeko «Garde-nationale»ko kapitanak dei bat izaten du Barkoixeko desertoreak direla eta (hamar bat gizon). Geroago 1872.an Barkoixeko 34 gazteetatik, kintan 30 insumiso. (Barkoixe Peillen etxeko artxiboko esku idazkia).

Zergatik insumisioa, frantses edo euskaldun nazio kontzientziarik ez zutenen artean? Alde batetik gazteek ez zuten, dirurik irabazi gabe 3-4 urte galdu nahi; bestetik Hego Ameriketan bizitzeko ametsa bazuten eta «gantxoak» baziren Hego Amerika beharrezko zituen langile haien biltzeko eskaintzak egiten zituztenak. Hamasei urteekin pasaporte eskatu eta ospa Ameriketara. Gero ahaztu egiten zitzairen frantses soldautzara itzultzeraz; gainera zeuden amerikar herrietan ez zen soldautzarik egiten. Noiz behinka amnistiak egiten ziren baina insumiso gehienak zaharregi zirenean baizik ez ziren ipar Euskal Herrira itzultzen. Frantsesak, alferretan, saiatu ziren Afrikako kolonietara buruz zuberotar eta beste ipar euskaldunak ekartzen. Gazteek bazekiten Afrikara joan-eta soldautza egin beharko zuketela eta beharbada gerra ere.

Insumisioak, ordea, gerrate garaietan bere aurpegi txarra edukiko du. Zuberoako Basaburuan bakarrik, XX;mendeko Lehen Gerra Handian⁷⁵³. insumiso eta desertore egon ziren, ezin ihesi egin zezaketen aita familiazkoak orduko 1914.ko gudu odoltsu haietara bidali zituzten. Halako bat Urdiñarbekoa hiru umezurtz utziz, gerratean hil zen,

Ez ditu gerrateak zuberotar guztiak izutzen. Alemanpean ehundaka zuberotar, Afrikako armadetan sartzeko, Espainiara igaro ziren. Larraine Bentaberriko nire lehengusu bat Iruineako bidean harrapatu zuten eta Miranda del Ebroko zigor zelaian gaixotu. Ur Beroagako egonaldian bizkaitarrek salbatu (han deskubritu zuen abertzaletasuna eta abertzale kantuak ikasi) eta gari-zaku baten trukean Francok aliatuei

—Agur Zuberoa—

lehengusua eman. Lehengusu horrek sekulako zauriak Monte Cassinoko guduan bildu zituen. Alemanen aurkako erresistentzian, armadan, deportazioan sartu ipar euskaldunen kopurua eta ehunekoa ikusiz Xipri Arbelbidek idatzi zuen, frantsesek horrenbeste egin balute hexagonoan 400.000 erresistente izango zela.

Zuberotarrak izan dira 1944.an, frantses errepublikan, aliatuen laguntzarik gabe askatu diren herritar bakarrak eta makiek aleman soldadoak preso hartu. (horiek kontatzen ditu aurtengo Davanten pastoralak). Maulek domina ederra irabazi du, baina errepublikaren aldeko konpromiso horretatik Zuberoan frantses alderdiak indarrez sartu dira eta jendeak pentsio emanaz esku lotu. Parisetik datozen ideiekin dabilta gure politika gizonak, jakobinismoan igeri eta euskalduntasunaren etsai amorratu. Jendeei sinestarazten die, Europako subentzioak Parisetik datozela eta Parise gabe ez luketela ez zahar pentsiorik ez Gizarte Segurantzarik; horregatik ia zuberotarren erdiak ez dira Euskal Herri departamentuaren alde.

Zuberoako alderriak

Basabürüa

Herriak. Hamasei udaletxe, hogeita lau herrixka ditu (denak XIV mendean ezagunak). Hau da jenderik gehien galdu duena berrehun urteez, alegia errepublika pean bizi garen garaietik, biztanleen erdia baino gehiago galdu du (1836.ko 10.000 tik 1996eko 3.800 tara jaitsiz). Basaburutar ondoko gehiago dago Parisen Bordelen Pauen, Buenos Airesen, Montevideon eta Santiago, herrian baino. Eta hori bizitzaren baldintzak askoz hobetu direlarik. Uruguaien zuberotar seme ziren Idiarteborda presidente ona, baita Bordaberri, diktatorea ere.

Artzantza eta basoa. Mendialde hori karaitz, flysch eta lapitzez dago, ofittoa ere lekuka, alegia Euskal Herri osoko harri berdinak daude. Goi mendietan karaitzaren usteltzeak eman buztin lur meharrean, pago eta izei (abeto) basoak daude 600. 1400 metrotara eta belarra lurra lodiago denean. Tarte hortan eguteraan, eguzki begian, belarra dator eta guk mendi izenez ezagutzen dugun horretan lehen behiak baizik ez ziren egoten, orain denetan dabilta Nafarrera jaten ere, zaintzalerik ezaz. Handik goruntz 1200etik 2000eraino ardi larreak eta artzainen olhalte (saroï edo selak). Udan hara igotzen dira artaldeak, eta hamar bat etxetako gizonak txandaka zaindu behar lituzkete Zuberoan ofizioko artzain gutti dagoelako.

Lehen artzaina mandoarekin astebeterako joaten zen Bospasei lagun han topatzen, eta gazta «bortü gazna» egiten. Bizpahiru bider osabekin honela ibili naiz. Orain udan nekazaria, maiz fabriketan lanean ari dena, berriki egin errepidez baliatuz, lanaren ondoren ardiei bisita bat egin eta etxera sartzen. Uste dut Euskal Herri guztian sistema hori zabaltzen ari dela. Askotan ardiek beren buruak zaintzen eta ez da etxetik joan ondoren gazta asko egiten goi mendietan.

Basabürüan baso zabalak badira. Oihanetan pago tantai ederrak hazitzen dira, baina zerragintza Beko alderrian, Pettiarrean dago: Bildoze herrian zerragintzan, Idiart enterpresan ehun bat langile daude. Maiz, *lanerako zurra* altzari egiteko pagoa nafartarrek erosten eta eramaten dute, ohol edo taula egiteko haritz zurra herrian bertan lantzen da. *Sutarako egurra*, herri bakoitzak baliatzen du.

Beraz Basaburuaren nekazaritzazko oinarrizko aberastasun handienak ardiak dira, gero basoa, eta azkenik behia. Haragitako behia egiten da, eta batik bat, gizendu gabeko txahal gaztea.

Basaburuko nekazaria geroago eta hobekiago bizi da, goi mendietako eta belar subentzioen artean, urtean, bi milioi t´erdiren pezeta baliokidetza jaso lezake (100.000 libera). Gero emigraketak lursail handiak aske utzi ditu. Etxaldeak azken 30 urteetan, batz besteko 3 hektarea lurretatik 20 hektaretara igaro dira. Orain belarra egiten baita gehien, gizon batek gaurko makinariarekin bi egunez lehen, lagun askorekin, bostez egiten zen lana egin dezake.

Lur lana Larraineko amaren etxondoa Nafarrorako mugaren azken herrian dago. Hiru urteez han lan eginik oroitzen naiz, gari txarra egiten zela, artoa bai, baina berantu heldu egiten zena. Gaur inork ez du Basaburu errentagarri ez den lur lanik egiten. Atharratze inguruko bizpahirur herrixketan izan ezik, ez da gehiago artorik, ez eta

aspaldian garirik, ardorik, sagardorik egiten ere. Baserritar askok beren baratza ere ez dute egiten. Askok ez dute ez konejurik, ez oilorik, gehienek txerri haztea utzi dute. (Santa Graziko gure Xenta auzogunean 12 etxetatik bitan txerriak daude, lauetan oiloak, zortzietan ezer ez)

Ez da bakarrik errentagarritasuna dela eta ez dela, baina Basaburuko nekazaritza horrek aldi txar asko ditu: giro hotza, bustia, —elge izeneko ordeka lur sail eder batzuk izan ezik— Errentagarri ez denaren uzteko beste arrazoia da etxekandreek eta etxeko jaunek ez dutela gehiago baratza egiteko astirik batak behien lana eta ardien lana daukalako eta besteak kanpoan lanean, zerbitzuetan, fabriketan; batzuetan etxetik urrun lan egitea, probetxugarriago delako.

Urak. Basaburuan bi indar etxe daude, bata Larraineko Uhaitzarekin, bestea Santa Graziko Uhaitza urarekin. Hidraulika berria, lurpean dagoen San Martin harriko leize ospetsuko ur hotz eta oparoa, erabiliz egin nahi lukete. Badaude Ligin eta Gotainen indaretxe txikiagoak. Gainera duela lauogei urte hasi eta lau industria txikiek, Uhaitzeko ura zarabilaten, eletrizitatearen egiteko eta garbiketa lan batzuetarako.

Bestalde, orain, erreka urak amuarrain, izokin, aingira egiteko lau arraindegietan baliatzen dira.

Harriak. Haitzurdina Gameren ateratzen da. Bideen zabortzeko harriztatzeko, Uhaitzetik legarra ateratzen da non nahi.

Turismoa. Basaburuaren baliabideetan turismoak beharbada ehuneko 20 etekina ekartzen omen du. Merezi du. Udaletxe batzuek baliatzen dute, antzinako eskolak akuratzuz, eta Santa Graziko herriak bezala Kakoetako lekuaren bisita ordainaraziz (urtean 70.000 bat bisitari).

Agroturismoa Zuberoan hedatzen ari da. Basaburu «pintoresco» horretan batik bat eta aste guttiz, haize onaren hartzera etorri hego-euskalherritarrak ikusten ditugu.

Larraine eta Zuberoak Iratiko negu eta udalekutik diru onik ateratzen dute. Hor dauden txaleten inguruan udan zaldiz eta oinez, baso zabal batean, ibilaldi ederrak egin daitezkelako eta neguan edota udaberrian elurrean txango -eskia. Santa Grazik Kakoetaz kanpo, bere baserri-ostatueta udan aterbetzen ditu, San Martin harriko elurtokira ordu erdi errepidez joaten direnak.

Iratiko uda-negu lekua Zuberoako Sindikata edo hermandadearen eskuetan dago; sindikato horren irabazi gehiena hor dauden txaleten alkilatzetik dator. Diru horrekin basoetarako eta artzaintzako bideak egiten dira, artzain etxolak hobetzen, pedilubioak eta korrak berriak egiten, foto-voltaiko sistemekin oraingo artzainek argia, ur beroa eta frigorifikoa eduki ditzakete.

Meatzak. Antzina burdinolak bazeuden Larrainen, basoko ikatzarekin eta lurpean aurkitu burdin-harriarekin. Aspaldian errementariak ateratzen zuten, eta auzoko nafartarrek geuk bezala errementariari «arotza» esaten baitute, Larrainekoen gaitzizena «arotxa» zen; XVIII-XIX mendean fabrika bar eraiki zuen Uharteko baroiak. Egurra eta burdina Zuberoako amankomun lurretan hartzen zuten. Laster burdin-harria ez zen baliagarri izan lur asko atera behar baitzen mineralaren biltzeko. XIX. mende azkenean itxi zen Larraineko burdinola eta Ligiko laminazio eta trefileria. Aluminio mineral asko dago Basaburuan, mendi oso bat Santa Grazin, kobrea bada Ligin : ez dira horiek baliatzen.

Jendetza Emigraketa lurra izan da beti Zuberoa, baina Basaburuak du gehienik sufritu. XIX. mende hasieran 10.000 jendera iritsi zen eta 1999.an 3.397 zituen gehi 246 bigarren etkez. Galera lazgarria izanik ere Basaburuak Nafarroako Saraitzu ibar osoak baino jendetza doblea dauka. Azkenik urrutirako emigraketa geldituxe da, baina orain Lapurdi edo Biarnora doatz.

Herria zahartu da (%40, 60 urteez goitikoak). Oraino duela berrogei urte, batz bestea, senar-emazte bakoitzak hiru seme-alaba zituen, gaur ia bat edo batere ez. Basaburuan hiru haur edo gehiago dutenak erdaldunak dira, euskaldun baserrietan edo ez da ezkontzen eta egiten denean haur baten izateko. Beraz ez da harrigarri Basaburuan langabezia oso apala izatea (%7). Jendetza kopurua ez da gehiago jaitsi kanpotar eta zuberotar jubilatuek etxeak erosten edo eraikitzen dituztelako eta dirua daukatelako etxegintzarekin ekonomia ahula bizi arazten. Basaburuan zeuden lau fabrikak azken berrogei urteetan itxi egin ziren Atharratzeko zerrategia eta oihalgintza, Ligiko oihalgintza eta gomagintza. Zorionez EMECA hegazkin gurpil egileak Atarratzen, 50 lanpostu sortu eta Akerbeltz garagardogintzak, gomagintzaren lekua hartu du Ligin. Bestalde bi etxegintza etxeek 40 bat langile dituzte.

Petiarra

Jendetza. Iaz Pettiarrean 10136 biztanle eta 614 bigarren etxedun.

Nekazaritza edo laborantza. Lur aberatsagoak badira ur ertzetan eta lehenbiziko terrazatan nahikoa ongarri ipini-eta ere bai. Artoa egiten da. Askotan arto hazia. Garirik ez. Azken denboretan kiwia sartu da. Ardi gutxiago eta behi gehiago daude, gainera behi esnadunak ere. Hor ere etxaldeak geroago eta handiago dira, baina hainbeste gauzaren egiteak lana eta dirua behar. Hain zuzen azken berrogeita hamar urteetan notarioek eta gero bankoek dirua mendiko aldean bildu eta beko herrialdean gastatzen dute. Petiarreko laboraria maiz zorretan dago, baina bankoek zelaietako nekazari horiek diru eskatzera eta zorretan sartzera bultzatzen ditu.

Lehen sektorean Mendikotan ofito hustiatzen dute, apurtzen, errepideen eta autopisten azpiak egiteko. Basoak ez du asko ematen, baina Basaburutik eta kanpotik ekarri zurra Bildozeiko industrian, Maule alboan lantzen dute.

Industria. Bigarren sektorea, XIX mendean Maulen garatu zen. Hau zen barruko aldean fabrika leku bakarra. Zoritxarrez eta garai bateko arrakastagatik monoindustria eraiki zen, abarketak (espartañak) eta oinetakoak (oskiak, botak) egiten ziren eta dira.

1890 etik goiti espartingintza garatu zenean, zuberotar euskaldunek muzin egin zioten eta milaka Rio de la Platara joan, haien lekuan 2 mila bat «espainol» ekarri zen. (1911.an Mauleko %36 biztanle espainola zen) 1950-1960 urteetan fenomeno berdina gertatuko da zuberotar gazteak Bordelera eta Parisera joan eta haien lekuan 600 bat portuges ekarri.

Hogeigarren mende hasieran abarketak, espartaz eta oihalez eginak, Hego Ameriketako euskaldunen artean saltzen ziren, gero han mauletarek bi fabrika sortu. Gerra ondoren, hain zuzen 1950-1960 modan zegoen euskaldun abarketa, eta gero kirol oinetako bat «pataugas» izeneko frantses armadak erosi zuen. Baina pixkanaka, beren artean ezin akomeatuz Maulen zeuden bizpalau enpresa handienak itxi ziren eta azkena Etchandy Txinako konpetentziak itoa iaz zerratu. Maulek 4.000 fabrika langileraino iritsi zen eta haietan 3.500 oinetako egiten zebiltzen. Krisiarekin fabrika langileen

kopurua 1.500 ra jaitsi eta bostehun bat herriz kanpo lanean (Legazpiko industriako maila berdinean). Orain 200 dira oinetako egile eta beste guztiak industria berrietan.

Enpresari gazteek ulertu zuten Biarnoko Industria Komertzio Ganbararekin loturik ez zirela kontutan hartuak. Baionarekin lotu ziren. Geroztik zuberotar dinamika piztu da: denetara hamabost bat fabrika, hamar urteez. Enpresa berrien sortzeko mintegia dago O.D.A.C.E. eta Zuberoako Ekonomiaren Behatoki bat ere badago. Teknologia lizeo bat Sorhüetan eraiki da eta hortik, batxileratetik landako bi urte eginik, mikromekanikan eta ordenagailuz agindu makinak, informatika ikasirik ateratzen dira. Bestalde eskulangintzarako formakuntza ere badago.

Gazte horiek baliatuz Pourillouk (ekoizpen eta kudeaketa) eta batik bat Mitxel Etxebestek (enpresa sortzaile eta merkatu ikerle) hamar lantegi sortu dituzte: EBL, EMECA, ARMAX, L.S., Artzainak, ASMA, PIKA enterpresak, 1990.urterako eraiki zituzten. Monoindustriarekin bukatu da. Jakin behar da burdingintzaz lau tailer daudela, bi metal karpinteria egiten dutenak, beste bat etxerako burdineriak eta laugarrena aeronautikan; bestalde hiru enpresek plastikoa lantzen dute, batak zakar boltsak, besteak eskatzen zaizkien moldatutako gauzak. Jakingarria da nola azken bost urteetan Mauleko eta Atharratzeko EMECA aeronautikako pieza egiten dabilala: laurogei ta zortzi langileekin Atharratzen hegazkinen gurpil sistemak eta Maulen beste horrenbestekin hegazkin batzuen barruko karrozeria egiten dituzte. Oihalgintzan (Béguerie etxea) sekuritatezko eta hotzerako jantzietan espezializatu da. Kautxugintzaz bi lantegi daude.

Janari industrian bi gazta egile daude Pyrénées-From eta Etorki (bien artean berrehun langileez goiti). Enpresa txiki asko dago Maule eta inguruan jendentzat janarigintzan hamar langilez pekoak direnak. Zuberoan Akerbeltz gargardoa, Eztia sagardoa, eta patxaran lantegi txikiak daude.

Fabrika batek ere katu, zakur eta beste etxe abereentzat janariak egiten ditu. Beraz mota askotako industriak, gehienak ertainak edo txikiak, baina lan emaile. Erronka da industrian 600 lanpostu sortzea: 400 industrian, 200 zerbitzuetan. (Ez ahaztu frantsesen Zubero mugatuak, bi kantonamenduekin 35 udaletxe eta 13.743 biztanle baizik ez dituela). Orainarte Europatik, Estadutik, euskaldunen Herrikoa bankutik eta herriko aurrizkitik dirua lortzen jakin dute. Badaude talentuak eta nahikundeak.

Estatistikek eta gure begiek dakusate, geroago eta jende gutxiagorekin nekazaritza berdina izango dela eta industriak eta zerbitzuak garatu beharko direla.

Zerbitzuak. Trenbidea eta autobusak kendu dira. Administrazioa aldiz apur bat goiti joan da. Eskulangintzan dira, artesau munduan hargintza, elektrizitatea, iturgintza, alegia etxe eraikitzen mantentze eta eraikitze lanetan lanpostuak gehitu. Gero ez bada Basaburuan supermerkatuak altxatu, Maulen Champion eta Intermarché daude.

Zerbitzuen artean zahar-etxeek lan ematen dute, Atharratzekoak euskaldun zahar ezinduak hartzen ditu, Maulen kanpotar asko dago. Noski zahar ekartze horrek ez du Zuberoako jendetza kopurua gartzetzen, baina zahartzearen fenomeno hori Europa osoan ematen da. Kezkagarria da Ipar-Europan dagoen zaharren etxetik baztertzeko ohitura ari dela gure herrietan hedatzen eta zaharrak ez direla, lehen bezala, etxeetan edukitzen

Ez dago Zuberoan jatetxe eta hotel gehiegi. Hotelak direla eta baserrietan gau edo astea pasa hedatzen ari da. Ikusi dugunez antzinako eskolak eta herriek erosi etxeak ere turistek eta elkarteek alkitatzen dira. Bizpalau jatetxe on bazter utzi-eta gehienak beren

—Agur Zuberoa—

menuaren kalitatea ez da prezioa bezain gora. Iratiko turismo-herrixkak lan ematen du, ikusi dugunez zuberotar artzainei diru.

Garai batean, orain gutxiago, usotegien subastak diru ederrik ekarri zuen, baina mendateak (lepoak) herrienak eta nekazarienak kanpotarrei honela ireki direnean, zuberotarren zuhaitzetako ohiturazko usotegien ehiza erori eginda. Aukera bat egin behar zuten zuberotarrek dirua ala usoa. Irailan turismo aberatsa zekarren Zuberoara. Oraindikan ere zerbait diru ekartzen du. Zuberotarrei geratzen zaie, ordea, ehiza onik: antzina baino orkatz eta basurde gehiago dagoelako.

Lanaren bilakaera bat Landunak 1950tik gaureraino %57tik %40ra jaitsi dira. Jendetza zahartu da, baina jagoiti Zuberoa ez da nekazari herria taula honen arauera: lehen sektorea (basoa, harria, nekazaritza), bigarren sektorea (industriak), hirugarren sektorea.

(Zerbitzuak: artesauak, turismolanak, medikuntza eta beste). Maiz begien aurrean estatistikarik eduki gabe esaten da Zuberoan 3 jendetarik bat industrian, bat zerbitzuetan, bat nekazaritzan dagoela. Egia besterik dago, taulak darakusan bezala: uste baino gehixeago dago industrian (II), askoz gehiago zerbitzuetan (III), eta esaten den baino gutxiago nekazaritzan (I)

	1950	1962	1990	2000
I. sektorea	%50	%29	%20	%18 (950)
II. sektorea	%25	%36	%37	%37 (1950)
III. sektorea	%22	%35	%43	%45 (2120)

Hizkuntza eta jendea

Frantziaren ahalegin gogorrek izan arren euskara orainarte bizitu da. Alde batetik XIX.mende azkenean frantses eskolak euskarazkoa kendu zuenean, haurrak ez zirelako eskolan ibili. Horren arazoi nagusia zen leku menditsu horietan lur lanerako tresna onik ezean haurrak eta gazteak erabiltzen zirela

1820etik aurrera, zuberotar mutilak soldautzan denborarik ez galtzeko insumiso egoeran eta neskak lanik eta jatekorik ez zelako, Hego Ameriketara emigratzen hasi ziren. Jendeek ez zuten ikusten zergatik frantsesa ikasi behar zuketan, gero gaztelania hitzegiten zen herrietara joateko. Uste zuten aski ikasten zutela idazten eta irakurtzen urrundik familiei euskaraz berrien emateko. Frantziara joan beharra XX. mendearen bigarren erdian gertatu zen eta euskara indarra galtzen hasi.

Bestalde XIX. mende azkenean eta XX. mendearen lehen zatian, zuberotarrak emigratzen zirelarik bi mila bat aragones, eta Erronkari, Saraitzuko nafartar langileak herrian sartu ziren. Jadanik denbora zaharretarik gelditu zitzaikigun bearnesak, eta berriki etorri portugeseekin, hizkuntza asko entzun daiteke Zuberoan, batik bat Maulen: frantsesa, gaztelania, portugesa eta euskara. Gero probintziako hiru herrixka txikietan aspaldidanik okzitanoz hitzegiten zuten Ozaraine, Jestaziñ, Erribareitan.

Montorin etxe batzuetan euskara, besteetan bearnes okzitanoa darabilate. Beste sei herrixkek herriaren Iparmendebaldetik Zuberoako euskararen lekuan nafar euskara. Zuberoatik kanpo dagoen Eskiulak Zuberoako euskara mintzatzen du. Egia esan, lanaren beharrak jendeak gutxienik elebidun egiten zituen. Egiategik 1785.an idatzi zuen:

«**Aspaldian dago errana gizona dela hanbatetan gizon nola mintzo suerte baitaki. Topa ere heüskaldün menditarrak dakian espainola delako heen aüzo, topa ere ordokitarrak dakian bearnesa edo zerbait frantsesetik, hantik biek dütükien abantaila gatik** (J. Egiategi *Lehen libürüa*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1985.)

Zuberera

Zuberoako euskara berezia da: gaztelaniak eta gaskoiak kutsatu dute. Zokoratu egonaz besteetan galdu hitzak gorde ditu, horregatik batzuetan Bizkaian eta Zuberoan hitz eta forma berdinak aurki zitezkeen. Gero gure hizkuntza sistema berezixea sortu du, duela hirurehun urte liburuak egiten hasi ginelako. Denborarekin Zuberoako euskalkia besteengandik urundu bada, orain A.E.K.ren eta ikastolaren eskolatzearekin hurbiltzen saiatzen da, zuberera idatzia, behintzat, besteek ere uler dezaten. Denbora berean zubererak euskara batuari hitz batzuk eman dizkio hala nola **aholku** (kontseju) **zinegotzi**, **jesan** (dirua mailegatu).

Esan bezala gure euskara besteetan galdu hitzez betea da Zuberotarrek ez dugu «pasatu» erabiltzen «**igaran**» bakarrik. Bereizten ditugu matar (**ehaiten**) eta morir (**hiltzen**). Ontzi batean ez da litro bat kabitzen, «**edeiten**» baizik. Ez dakigu zer den ez allegatzea, ez arribatzea, beti «**heltzea**» esaten baitugu. **Zurra** «madera» eta **egürra** «leña» beti bereizten ditugu

Zubereraz *belarrari* «**belhar**» esaten zaio, baina belarraren lan eta produktentzat bizkaierazko **beda-** oinarria erabiltzen dugu **bedazia** (belar hazia da), **bedaroa** (belar egiteko aroa), **bedaka** (belar lana) eta **bedatsa** (primabera, udaberria). Halaber elatiboan- **tik** en orde z bizkaieraz bezala **-ti** erabiltzen dugu : **laneti sartzin**. Bizkaieraz bezala leku izenekin diogu: **Bilborik, Baionarik** eta ez Bilbotik, Baionatik. Iruinaldeko euskaran bezala **-kin-**en orde z **-ki** : **zureki** ez «zurekin».

Beste zaharkeria bat, bizkaierazko testu zaharretan eta XVII mendeko lapurtarrean zegoena, Zuberoan bizirik dago, izan aditzean, geroaldi zaharra.

düket : izango dut (gero, **dükek, dükezü, düken, düke, dükegü, dükezie, dükie**)

nizate : izango naiz (gero, **hizate, date, girate, zirate, dirate**)

Baina ez dugu izan laguntzailearekin erabiltzen eta **jaitsiko da, ikusiko düt**, diogu.

Intentzio edo asmozko atzizki bat asko erabiltzen dugu. Zuek izenekin ezagutzen duzue: andregai, lehengai, eta beste, baina Zuberoan aditzekin: **egingei düt, joangei düt, ützi gei düt** eta pollitena, **geietan da** (asmotan gaude).

Zailena zubereraz eta ekialdeko beste azpi-euskalkietan zukako alokutiboa da. Zuek hikako *duk* nokako *dun* ezagutzen badituzue guk zukako *duzu* nahasgarria daukagu. gainera zubereraz markatu gabe formak bakarrik galderetan entzuten dira. *Nor da?* eta erantzuna : *Ni nüik, ni nüin, ni nüzü.* Nork egin du?

eta erantzuna: *nik egin diat, nik egin diñat, nik egin dizit.*

Gaztelaniatik ehundaka hitz hartu ditugu eta ez besteen berdinak beti. Noizbait zuberotarrek zaldiak Ebro aldean erosten zituztenetik, zaldi arra **garañoa** da, eta umeak **podra** «urriza», eta **potro** «arra». Elizako hiztegian ere euskara eta latinaz kanpo, gaztelania nagusi (**dilubio, ebanjelio, ermita, eterno, kalbario, linbo, misterio, pagano, profeta, protsimo, purgatorio, pentakoste, sakrifizio, salbatore, soberano** eta abar). Arruntean gaztelania gauza bitxiak adierazteko erabili ohi da (**alto, dilubio, kabeza, katxarro, fallo, miedo, txasko, biekho/viejo**, eta beste). Birauak ere, gehienak, gaztelaniaz daude, nonbait Erriberako artzainekin «mecagoen» erabiltzen ikasi dugulako.

Ez da harritzekoa zubereraz gaztelaniaren agertzea, salerosketa gehienak «kastellano ezür beltzekin» egiten zirelako, hala diogu zuen gisa, **kario, komerzio, negozio, prezio, sozio**. Bestalde XIX mendean hasi-eta bostehun urteez zuberotarrek Andaluziaraino lan migraketak egiten zituzten eta hizkuntza nahasten. Beharbada erdara horren beste eragin bat legoke, eta zuberotarrak hitzegitean ia gaztelaniaren azentu tonikoa daukalako.

Frantzialdetik auzo bearnesekin eduki ditugun harremanengatik, gauza itsusi guztien adiarazteko, haien hitzak eta latinetikakoak erabiltzen ditugu. Bestalde, maiz, frantses teknikak auzotik sartu direlako hiztegi zaharrea bearnes hitz asko dago, batzuetan nekazaritzan, baina gehiago etxegintzan, edo ehungintzan. Lehenago zuberotarren auzoak ez ziren frantsesez mintzatzen beren bearnes okzitanoa zeukaten, eta euskaldun gizon askok, merkatuetan edo lanean, edo migraketetan hizkera hori ikasten zuten. Orain gure auzoek beren hizkuntza ia utzia dute, eta zuberotarrek ez dute gehiago bearnesa ulertzen. Denbora guztietako hogeit bat testu, hiztegiak, entzunak, aztertutik ikusi nuen zubereratik 2000 bearnes hitzez goiti pasatu zirela. Auzoko hizkuntzan bezala, tekniken zahartzearekin galdu. Zortziehun bat uler ditzakete jende

—Agur Zuberoa—

zaharrek, ehun bat beharrezkoak dira eta ordezeko gabe, gehienak beste euskalkietan eta euskara batuan daude.

Oraingo zuberotarren artean, guk ere gazteen artean euskaldun pasibo asko ditugu, gero alfabetatuak, berez ikasiak, eta ikastolakoak kontu izango dira %20 zuberotar euskararen irakurtzeko gai da. Antzina katiximako dotrinarekin, elizan euskaraz irakurtzen eta idazten ikasten zen, orain hori dena frantsesez dago. A.E.K.ren eta ikastolaren bidez, baita Xiberoko Botzaren eraginez euskara estandarraren ehun bat hitz euskalkian sartu dira (**albiste, dantzaldi, ikastola, iragarki, irrati, jaungoikoa** (jinkoa), **kantaldi, telebista**) Maulen eta beste herri batzuetan seinale elebidunek hiztegi berria idatziz irakasten dute. Egoera ahula hurrei ez delako nahikoa irakasten. Frantses telebistak eta zazpi urteetako eskolaren ordeztu guttienik hamalau frantses eskoletan egiteak euskarari sekulako kalteak egin dizkio.

Zuberoaren ekarpena kulturari.

Etxe eraikuntza berezia du Zuberoak: pireneotar tankeran etxe erraktangularrak, antzina oholez estaliak, orain pizarraz, arbelez. Elizetan erretablo batzuk frantses klasikoak dira, baina gehiagotan Ribera izeneko espainol batek barroko ximple batean eginak. Eliza askok XVI. mendetik goiti, Kontra Erreformatik protestanteak akasatu ondoren, kalbario kanpandorea (campanario de espadaña) hiru triangulu motakoa herrietan hedatu du: triangulu handiena erditan Jesusen kurutzea eta bi aldetatik triangulu txikiagoak lapurrenak Hau da ikusten dena Ündüreinen, Bildozen, Gotaine, Maule gainean, Mauleko kolejoan eta beste bospasei eliza txikietan.

Beste kultura ekarpena euskal teatroa da, *pastorala*. Protestanteen aurkako Kontra Erreformatarekin XVII. mendetik hasi-eta ehun bat antzerki idatzi dira. Zaharrenek Erdi-Aro sistema darabilate, erlijio teatroarena, eta Europan beste herri guztietan galdu dena zuberotarrek gorde eta begiratu dute. Herri bateko jenteez zuten pastorala ematen eta urtebetez ikasi behar. Oraingo demografiarekin bizpahirur herrixka biltzen dira horretarako.

Urtean pastorala bat edo bi ematen da Zuberoan, eta Euskal Herri osotik eta kanpotik lau-bost mila jende ikusten dute Belardi edo plaza zabal batean ematen den antzerkia. Bere grazia, euskara ulertzen ez duenarentzat ere, dantza, kantua eta testua elkarrekin ematean dago. *Ikusgarri oso* hau, gaurko teatrogile moderno askok bilatzen dute.

Benetan pastoralaren testua trageria behar du izan. Norbaiten edo herri baten pasadizo txarrak kontatzen ditu. Martirioak, borrokak persekuzioak, Santa Engrazi, Santa Katalina Santa Helena, Erregeren eta enperadoreen bizitzak, Clovis, Karlomagno, Napoleon, Santxo Azkarra, edo hurbilagoko euskaldun heroen bizitzak, Zumalakarregi, Iparragirre, Agirre lehendakaria. Pastoral izenak jendea dakarrelako edozein antzerkiri, pastoralaren jokoa jarraituz geroz pastorala dela esaten zaio, nahiz bertsolari baketsu eta arazorik gabekoren bizitza oker hartua izaten den. Pastoral izateko baldintzak (eta hala da J.L. Davanten aurtengoa Sohütan, «*Ziberoko makiak*»

1. historikoa behar du izan.
2. herri baten edo pertsonaia baten bizitza kontatu.
3. tragedia izan : martirioa edo gerrateaz jardun.
4. aingeruek, apezek, eta batzutan apezpiku Aita Santuek darakusate ez dela batere antzerki profanoa.
5. bertsoan izan behar da eta ohituraz zortzi silabatako laukoetan emana. (Ikus adibidea urrunago)

Pastorala egin nahi duen herriak bizpahiru urte lehenago Ihautiriko maskarada bat antola lezake. Maskarada horretan dantzaz kanpo, testu satirikoak garrantzi handia du. *Pitxuk* batez ere herri bakoitzean, ausartzia handiz gizarte kritikaz hitzegiten baitu. Maskaradatik landa pastoralari pentsatu behar da, baina dakigun bezala gazteen artean euskara nahikoa galdu da, beraz bi urteez euskarazko klaseak hartu behar dituzte; halaxe gazte bat baino gehiago euskaltzaletzen da eta ulertu arren hitzegitera ausartzen ez zena atrebitzen. Beraz pastoralak badu alfabetatze eragin ona, nahiz laburra izan daitekeen.

Pastoral ez diren ikusgarri saio onak, eta pastoral izen hori iruzurrez erabili gabe, antzerki kantatuak Zuberoan ematen dira. Bertan aski arrakastatsuak dira, Pipas Larrandaburu, Niko Etxartek eta Berzaitzek eginak baita Bedexagarrek Iruinean Gayarrez eta Etxahunez eman zuen «Ama». Antzerkiaren berrikuntza nahia badago Zuberoan, ikusgarri laburrago eta kostu gutxiagokoen alde. Pastoralak XX. mendean, santu eta kanpotar erregeak bazterturik euskal gaiak eta abertzaletasuna aipatzen ditu.

Zuberoak daukan beste altxorra, kantua da. Asko salbatu dira, kantatzeko ohiturak ez duelako etenik izan, baita XIX mendean hasi eta ez bakarrik folkloristek baina nekazariak ere kantu kuaderno osoak bete zituztelako. Halaxe XV. mendeko gertaerak kontatzen dituzten lau eresi bildu dira, hiru *Urrutia* noble baten kontra laugarrena banderizoen pasadizu bat kontatzen duena *Bereterretxen heriotza*. Aberastasuna, batik bat satira batzuetan, Ihautiri bertsoetan eta Maita kantetan daukagu, eta altxor honen pitxi batzuek entzun eta entzungo dituzue. Ohiturazko kantarietan, kantu tankera zaharra gorde dutenak badira nola J. Chuburu, J.M.Bedaxagar, P. Behocaray, P. Bordachar, Niko Etxart, Maddi Oihanart, J.Y.Constantin Etxebarne, Pipas Larrandaburu haur eta gazte batzuk. Ohitura bai, baina berrikuntza ere. Ez zaigu ahaztu behar bi bideetan tradizioa eta rocka nola zerbitzatu dituen Niko Etxart zuberotarrak. Musika-komediaren eta opera komikoaren artean dagoen ikusgarri berri onik asmatu du Berzaitzek (Elkanoren semeak). Euskal pop musikaren Pariseko ordezkaria Mauleko Peio Serbielle daukagu.

Eskoletan euskara sartu bada, dantza askoz hobeki sartu da eta Zuberoako «jauziak» eta dantza klasikoak ezagutzen diren gazte asko daude. Euskaldun tankerako musika eta dantza asmatzen dabil Mixel Etxekopar txirulari eta euskazko maisua.

Zubererazko literaturak

Hamabostgarren mendeko eresi zaharrak

Zuberoan Euskal Herri osoan bezala, jauntxoak, banderizoak potereaz jabetu nahi izan ziren. Zuek Oñaztarrak et Ganboarrak zenituzten gisa, geuk Agramontesak eta Beamontesak taldeak genituen. Hegoaldean bezala Iparraldean banderizoez galdu zuten. Haien ankertasunak salatzen zituzten olerkiak, herriak kantatuz gorde dituenak lau dira. Batek Leringo Luis kondearen traizioa kontatzen du eta nola Larraineko Bereterretxe doilorki hil zuen. Larraine eta Etxebarren herrien artean gertatu zen.

Hona Andozeko etxeokoin Bentaberri etxean ikasia.

Bereterretxen kantorea. (1445.an gertatua)

Haltzak ez dü bihotzik

Ez gaztanberak ezürrik

Ez nüan uste erraiten züela Aitonen semeek gezürrik.

Bereterretxek oheti (k)

Neskatoari eztiki

Abil (Hoa) eta soegin ezan ageri denez gizonik.

Neskatoak berehala

Ikusi züan bezala

Hirur dozena bazabiltzala leiho batetik bestera.

Bereterretzek leihoti (k)
Jaun konteari goraintzi;
Ehün behi bazereitzola beren zezenak ondoti (k).

Jaun konteak gisala
Traidore batek bezala:
Beretxerretxe aigü (ator) kanporat itzuliko hiz berhala.

Ama indaziüt (emadazu) atorra
Mentüraz sekülakoa
Bizi denak orhit ükenen (oroituko) dü Bazko biharamena.

Andozeko ibarra
Ala ibar lüzea
Hiruretan ebaki zaitan armarik gabe bihotza.

MariSantzen lasterra
Bost Mendietan behera!
Lakarri Büztanobian sartü da belaünak herresta.

«Büztanobi gaztea
Ene anaie maitea!
Hitzaz honik ezipalin bada ene semea joan da.

«Arreba ago ixilik
Ez otoi egin nigarrik!
Hire semea bizi balin bada, mentüraz Mauleala da.

Ama horren lasterra
Jaun kontearen etxera
Aiei! eta Jauna nun düzüe ene seme galanta.

Hik bahüana semerik
Bereterretxez besterik?
Ezpeldoï altean dün hilik. Abil eraikan bizirik.

Ezpeldoian nintzanean
Han banüan han lana
Haritz bati esteki eta bizia galdü nüan

Ezpeldoïko jenteak
Ala sentimentü gabeak
Hila hain hüllan (hurbil) üken eta deus ez zakitenak?

Ezpeldoïko alaba
Margarita deitzen da
Bereterretxen odoletarik ahürkaz biltzen ari da.

Ezpeldoïko бүkata
Ala бүkata ederra!
Bereterretxen atorretarik hiru dozena ümen da.

Beste hirurek zuberotarrek gorroto zuten *Urrütiako jaunaren* gaiztakeriak kontatzen dituzte, nola andrea adarrak egiten zizkiola gezurrez salatu, eta jipoitu zuen. Hona senar-emazteen artekoa:

Lehen kantua *Ahetzeko anderea* (1425?)

«Ahetzeko anderea
Urrütian korpüttez,
Hor dizü bere büria
Kanpoan da bihotzez.

Nor dü bere maitea
Nahi nüke egia.
Jinkoak nahi badü
Hiltzea üken dü».

«Gure jaun Ürrütia
kexüan beti zira.
Erradazü zertako
ni ez nüzü kanpoko.»

«Hürrun zite niganik
Ez dit zure beharrik,
Bazoaza kanpora
Neri adar biltzera».

«Jauna holako gaüzak
Ahetzeko andereak
Ez ditizü ikasi
Heen doazü ihesi».

Ele horiek ahoti (k)
Jalkitzen zirelarik,
Urrütiak bilhoti (k)
Herresta (narrasta) dü ibili.

«Jinkoa zer bizia!
Oi! Jaun Ürrütia.
Ni Ahetzeko etxean
Nindagozün bakean.

Hona jin (etorri) behar nizün
Ene sortea züzün,
Bihotzmin ükeiteko
Zure kexarazteko.

Ogen (erru) gabe zü beti
Mintzo zitzaizt (zaizkit) gogorki.
Otoi zure begiak
Ütz ditzala kexüak».

«Goizean goizik jeikirik
Ogi opilak eginik,
Ahetzeko Anderea

Lehia dün handia».

**Zareta bat бүрүан
Kanporat jalkitzean,
MUSD'Ürrütiak züan
baratü bai bidean.**

**«Nun zabilta hain goizik
Jauregia hüstürik?»
Galtatzen dio Ürrütik
Begiak oldartürik.**

**«Jauna ikusiko düzü
nahi balin badüzü,
norat orai nabilan,
zareta bat бүрүан?**

**Jente eskeleari
Emaiteko sokorri,
Madama Ürrütiak
hartü zütüan bideak.»**

**Opilez zarea baitzen
Beterik jente prauben.
Ürrütiak zarean
Esküa ezari züan.**

**Opilak ordü hartan
Jin ziren harilkotan.
Ürrütiak berhala
Ustez trunpatü (erratu) zela,**

**«Ehülearen etxera
zoaz bilberaztera»
«Jauna ikusten düzü
orai zük badakizü»**

**«Parka izadazüt arren
Bekaitz ez nüzü izanen,
Emazte hon zirela
Orai badit aproba.**

Bigarren olerki batean *Ürrütiako Anderea* Andre noble horrek dio nola senarrak gaizki erabili duen ile adatsetik hartu-eta lurrean narrasta. Eta bestalde senar hori dela fidel ez dena isilpeko ohaidea daukalako. Bi irain eta goitzarren horien mendekatzeko Ürrütiako andreak, anaia duen Baigorri-Etxauzko kondea deitzen du eta nahiz zubereraz, nahiz nafarreraz dagoen eresi luze hori bukatzen da andrearen deiarekin :

**Etxauzeko bizkondea
beldurra duzu ahalgea
uzten duzu penaz hiltzera
zure arreba anderea! (nafarreraz)**

Eta anaia bidean jarriko da

Bizkondea mutilari
Zela bedi zaldi hori!
Erra bedi urso hori
Jar gaitean bide horri. (nafarreraz)

Bizkondea armaturik
Zaldi urdina zelaturik,
Urrutian sartu zuzun
Urrutia eskapi leihotik. (nafarreraz)

Hirurgarren eresi batean *Ürrütiako Jauna* edo *Amak dio alabari* ixilpeko ohaideak bere mentura eta jaunak egin dion haurrarekin batean deitoratzen du. Ürrütiako jaunaren ezkontanaiak tirokatzea eta errudunaren Espainara eskapatzea iruzkintzen du eta hor agertzen den amaren bertso mingarriena da

Amak dio alabari
kanaila txarra hi!
Hik behar düna ibili aitonen seme horieki (n)
Ibiltekoz ibil hadi, hihaur üdüri zonbaiteki (n)

Albadak. Hamabostgarren mendea baino zaharrago diren bertsoak, albadak Zuberoa guztian otsailaren bostean Kanderailüz (zuen Santa Agedaz) kantatzen ziren eske bertsoak. Ohitura hori Larrainen azken urtetaraino mantendu zen. Euskal Herri osoan abesten direnen antzekoak edo berdinak dira. Hona konparaketa

Zuberoan

Ezkira hona beharrez
Ez eta ere aiherez
Üsüagatik, legeagatik
Erreprotxüen beldürrez.

Baratzean belar hon
Gaurko gaüa guretzat hon
Eta orai bagoatzüe
Jinkoak deizüela gaü hon

Baratzean üthürri
Zilar hura üdüri (dirudi)
Etxe hontako txipito hori
Hartan sartua üdüri.

Zelü goretan izarra
Hur ondoetan lizarra;
Etxe hontako zahar horrek
Ürrez dizü bizarra

Eman düzü oneski
Konpainiak oro badaki

Etxekandere zabala

Beste probintzietan

Ez gabiltza ederrez
Ez eta ere beharrez,
Kostuma zaharren uztez
Erreprotxa beldurrez.
(Lapurdi, Nafarroa Beherea)

Gure baratzean belar ona
Jainkoak digula gau ona
...
(Nafarroa garaia, Larraun)

Hor goien goien iturri
Ura da txorrotik etorri,
Etxe hontako etxeoandreak
Ama Birjina dirudi
(Urdiain)

Hor goien goien izarra
Errekaldean lizarra;
Etxe ontako nagusi jaunak
Urre gorrizko bizarra
(Urdiain, J.M.Satrustegi)

Eman duzu nobleki
Konpainiak ere badaki:
(Lekaroz, R.M.Azkue)

Etxe hontako andre zabala

**Lekü honeko alaba
Bide hontan jakin dizügi
Amoia egile zinela**

**Meza ari da ematen
Zeinüak errapikatzen;
Etxe hontako txipitto hori
Aingürüekin mintzatzen.**

**Ama onaren alaba,
Bidean aditu dugu
Limosnaria zarela
(Urdiain, J.M. Satrustegi)**

**Ezkilak errepikatzen
Jendea zer den galdetzen;
Lekarozko Erretor jauna
Aingeruak mintzatzen
(Lekaroz, R.M. Azkue)**

Ezer ematen ez zutenean

**Zuberoan
Oihanean elorri
Pika eta erori;
Etxe hortako etxejojaunak
Urden kakala erori.**

**Eman badü badügi
Eman ezpadü eztügi,
Eman badü eta ezpadü
Koblak eginen dütügi**

**Etxean eder gerrena
Etxekandere lerdena:
Zure eriko erraztünaz
Eros leiteke Baiona**

**Pinpirineta, pinpirineta
etxe hontako primistetan:
Zazpi zezen tolera niro
(Prima/ primu) zure ezteietan.**

**Beste probintzietan
Goien goien elorri
Ondoan jo ta erori
Etxe ontako etxekandreak
Labe zatarra dirudi.
(Urdiain, J. M. Satrustegi)**

**Emongo boizu emoizu
Baldin emongo badozu;
Zuri begira gagozan arte
Egiten yaku berandu
(Gernika S. Altube)**

**Etxean eder gerrena
Etxekandere lerdena;
Zure eriko erraztun hortaz
eros niro Baiona
(Kantuz, L. B-N.)**

**Xoria dago pinpirinetan
Etxe hontako leihoetan;
Zazpi zezen hilen tuzte
Primu horren ezteietan.
(Behorlegi, R.M. Azkue)**

Beste konparaketa gehiago egin nuen FLVen 1970.an argitaratu lan batean eta zuek herri honetakoekin ere eman ditudan apurrekin gehiago egin zenezakete.

Txikitoak

Nonbait Erdi Arotik iritxi zaizkigun bertso eta ohiturak ziren *Txikitoak* hogeigarren mendean bildu ditugunak artzainek goimendietan zeudenean, elkarri desafioz botatzen zituzten bertso berde eta latzak, ziren *txikitoak*. Zer nahi irain jaurti zitekeen, baina bertsoa, txikito! oiuhu hitzarekin bukatzen bazen ezin zen borrokan sartu, ezin gorrotorik eduki. Artzainik ezaz 1960. urtearen inguruan, ohitura galdu zen. Italian, omen, honelako bertsoak badira *stornelli* deritze. Rap amerikarra ez da Europako horien

modako kopia berria baizik. Hona, Georges Hérelle frantsesak Leopold Irigaray zuberotarrarengandik eta geroago Txomin Peillen zuberotarrak senideen artean, bildu batzuk *Igela* aldizkaritik aldatuak. Hona goxoenak, entzungarrienak :

Satin eta zeta hari;
pasajanta, huna beha adi
korajerik balinbadük
txikitokan has adi.

Txikito!

Ahari beltza errekan;
pitoa xütik bragetan;
jokhatzen diat jokhatzen
eztüala pintoaren saria sakolan

Txikito!

Maidalena ganean lanho,
baratzean phorrü eta oinho
Hebentik horra ikhusten deiat
Ehün unka morpio

Txikito!

Oihaneko haltza,
haren peko hartza
harek elkhiko deik
koskoilletako hatza

Txikito!

Arrautzeak bilho gabe
aphoa büztan gabe
hebentik horra
ikhusten diteiatzat
koskoillak
batere bilhorik gabe

Txikito!

Erregeren idiak üztartürük
üztar hedeak gorriz tintatürük
Ehün urthez bizi behar dakeala
haien adarrak
üzkütik sartürük.

Txikito!

Haintiko hegilla
Hunaintiko nabailla;
Errabia dakeala
Zankharteko khabeila

Txikito!

Kanpetaren tinta beltza
bertzaren üzkü beltza;
E'hiz aurthen ezkontüko
hizan müthür beltza.

Txikito!

Banoak bai aitzina
ezpeitüt egoiteko aizina;
horaren uzkian sar hadi

Pasatzaile, honi kontuz
Satin eta zeta hari;
Bihotzik baldin baduk
txikitokan has hadi.

Txikito!

Ahari beltza errekan;
Pitoa zutik bragetan;
jokutzen diat jokutzen
eztuala pinta saria sakelan

Txikito!

Madalen mendian laño,
Baratzean porru ta kipula
Hemendik horra ikusten diat
Ehun onka sabelzorri

Txikito!

Basoko altza,
Haren azpiko hartza
hark aterako dik
koskoilletako hatza

Txikito!

Arrautzak bilo gabe
apoa buztan gabe;
Hemendik horra
ikusten dizkiatzat
koskoillak
batere bilhorik gabe

Txikito!

Erregeren idiak uztarturük
uztar edeak gorriz tindatuak
Ehun urtez bizi behar dukek
haien adarrak
ipurzulotik sarturük.

Txikito!

Haraindiko munoa
Honaindiko ibar hondoa,
Amorra dakeala
ankarteko kabila.

Txikito!

Kanpeta egur tinta beltza
Pertzaren ipur beltza,
Ez haiz aurten ezkonduko
haizen mutur beltza.

Txikito!

Banoak bai aurrera
ezpaitut egoteko astia;
zakur ipurdian sar hadi

südürrez aitzina

Txikito!

Ahüntzaren büztan txüta,
haren peko xilo hutsa;
Sarezak sar südürra
ezkapa ez dakion bütza!

Txikito!

Belea doa hegalez
bere bizi beharrez;
Ehün urthez
bizi behar dakiala
haren khaka mokorrez

Txikito!

Gerezi beltz jan diat
khakeria badiat,
Ixil-ixila egoiten ezpahiz
ahoala eginen deiat.

Txikito!

Erbiak lau zankho
lauak khako;
khako badütü khako
khaka dela hiretako.

Txikito!

Gaztañatzea hun dük
kholtegei gerezitzea ere
gerezitzea ere bai;
taulagei;
Hi ere bai eni ihardesteko
beno, alhorreko khüsogei.

Txikito!

Hamar eta sei, hamasei,
gure labeko bi süthei
Txikitokako beno
hobe hintzate
alhor bazterreko khüsogei

Txikito!

Hur bazterrean harria
haren gañean txoria;
Ikusten deat hebentik horra
kintaleko zorria.

Txikito!

Maidalena gibelean
bai eta aitzinean
khaka ezkapa dakiala
mündü ororen aitzinean

Txikito!

sudurraz aurrera!

Txikito!

Ahüntzaren buztan zuta,
haren azpiko txulo hutsa;
Sar'ezak sar sudurra
eskapa ez dakion, putza!

Txikito!

Belea doa hegalez
bere bizi beharrez;
Ehun urteez
bizi behar dakeala
haren kaka mokorrez.

Txikito!

Gerezi beltz jan diat
kakeria badiat,
Ixil-ixila egoten ez bahaiz
ahora egingo diat.

Txikito!

Erbiak lau zango
lauak kako;
kako baditu kako
kaka dela hiretzako.

Txikito

Gaztain egurra on duk
hesola gai,
Gerezi ondoa ere bai
ohol gai;
Hi ere niri erantzuteko
baino, soroko kusogai.

Txikito!

Hamar eta sei, hamasei
gure labeko bi supala
Txikitokako baino
hobe hintzateke
soro bazterreko kusogai.

Txikito!

Ur bazterrean harria
haren gainean txoria;
Ikusten diat hemendik horra
kintaleko zorria.

Txikito!

Madalen mendiaren atzean
bai eta aurrean
kaka eskapa dakeala
mundu guztiaren aurrean

Txikito!

XVI. mendeko esaera zaharrak.

Zalgizeko jaun protestanteak idatzi zituen olerki guztiak galdu ditugu. Esaerak bireskuratu zituen Oihenartek urrengo mendean, hona batzuk:

Urra berago, harra barnago. Gazterik sartu ohitura txarra, barruanago sartzen delako

Ez jan, ez lan, goseak dakarrelako alferkeria, eta gizon gose alferra gaizki egitera daramala, «**Gizon baraua, erdi diabrua**» dela esaten delako.

Hitzez besterik behar da haurrak haziko badira, bai errazena haurren egitea litzateke baina gero, **Haurrak hazi eta nekeak hasi.**

Garai horretakoa da nonbait 1585.eko *Atharratze Jauregiko* anderearen kantu sonatua, beregisara Benito Lertxundik ezagutarazi duena; herriak izenak aldatu zituen baina Jaurgain historilariak erakutsi zuen, Ozazeko Jaurgaineko alaba bat hogeii urteekin, 60 urteko Atarratzeko jaunarekin ezkondu zutenean gertatu zela.

Ezkondu eta ez ziren Zuberoan egon ezen Mauleko gaztelua protestanteen eskuetan zelako, Atarratzeko jaun katolikoa haien aurka joan zen eta galdu. Galdu ondoren bere jauregia suntsitu zioten eta ezkonberri gaztearekin Espainiara ihesi joan zen, gero Nafarroako Otxagabira bizitzera etorri, beraz hor ez zegoen ez Hongriarik ez Hongriako erregerik:

**Atharratze jauregian bi zitroin (lemoi) doratü
Hongriako erregeak batto dü galtatü (eskatu)
Arrapostü (erantzuna) üken dü ez zirela hontü
Hontü direnean batto ükenen dü.**

**Atharratzeko hiri, hiri ordoki;
Hur handi bat badizü alde bateti (k) ;
Erregeren bidea erdi erditi (k)
Maria Maidalena (mendia) beste aldeti (k).**

**Aita, saldü naüzü idi bat bezala;
Ama bizi izan banü aita zü bezala,
Ez nündüzün ez joanen Espainian behera
Bena bai ezkontüren Atharratze Salara.**

**Ahizpa joan z(a)ite portaleala
Engoitik horra düzü Hongriako erregea;
Hari erran izaiozü ni eri (gaixo) nizala,
Zazpi urte hontan ohean nizala.**

**Ahizpa ez nükezü hola sinetsia
Zazpi urte hontan ohean zirela;
Ez eta hain eri gaitz zirela
Bera nahi dükezü jin zü ziren leküra.**

**Ahizpa jauntz ezazü arropa berdea
Nik ere jauntziko dit ene xuria
Engoiti horra düzü Hongriako erregea;
Bozik (pozik) kita ezazü zure sor-etxea.**

**Aita, zü izan zira ene saltzale,
Anaie gehiena diharü harzale
Anaie artekoa zamariz (zaldiz) igaraile,
Anaie txipiena ene lagüntzale.**

Aita, joanen gira oro alkarreki (n)
Etxera jonen zira pena handireki (n)
Bihotza kargatürik begiak bustirik
Eta zure alaba tonban ehortzirik.

Ahizpa zoaz arren salako leihora
Iparra ala Hegoa denez jakitera;
Iparra balinbada goraintzi Salari
Ene korpützaren txerka (bila) jin dadila sarri.

Atharratzeko zeinüak berak errepikatzen,
Hanko jente gazteriak beltzez beztitzen,
Andere Santa Klara hantik da partitzen
Haren peko zamaria ürrez da zelatzen.

Hamazazpigarren mendea

Arlande Oihenart zuberotar izan arren, nafar andere noblekin ezkondua zelako, be nafarreraz idatzi zituen olerkiak. Errefrauak ordea Zuberokoak ere eman zituen. Oihenartez asko idatzi da, idazleak abade ziren garaian, bera abokatua izan zelako eta ez zuelako erlijioaz asko idatzi, maitasunezko olerkiak eman bai *Gaztaroa neurthitzetan* liburuan, 1657.an. Oihenartez liburu franko egin delako ez dugu luzaro aipatuko. Gogoratu behar dugu Euskal Herriaz idatzi lehen historia liburu seriotarik bat latinez eman zuela *Notitia utriusque Vasconiae*. Hona haren errefrau batzuk:

- 851** **Emazte ederra duenak etxean**
 Bere etxea etsaien artean
 Mahastia karrikaldean
 eztago arregura gabe bihotzean.
- 861** **Zotza ere zedaztaturik eder**
- 876** **Zurra ezpala bera bezala (A tal palo tal astilla)**
- 500** **Emak horari ezurra, eta emazteari gezurra**

Mende hartan olerki ukigarria idatzi zen, herriak gure egunetaraino gorde duena. *Goizean goizik* Irigarai jaunaren heriotzaz. Erdi leiendaz kontatzen da zelan Irigaraiko jauna eztei egunean hil zen isilpeko amorante batek lore pozoidunak bidali zizkiolako; gero egun bereko alargunak bere gelan eduki zuen zazpi urtez, egunaz lurpean, gauaz bi besoen artean eta ostiral goizetan limoi urez garbituz. J.M. Bedaxagarrek Sallaberri mauletar eman doinua baino zaharragoa eta olerkia baino askoz zaharrago aurkitu zuen eta entzungo duzue. Hona zer dion abestiak:

Goizean goizik jeiki nündüzün esposa nintzan goizean
Bai eta ere zetaz beztitü ekia (eguzkia) jeiki zenean
Etxekandere zabal nündüzün egüerdi erditan
Bai eta ere alargüntsa gazte ekia sartü zenean.

Musde Irigarai, ene jauna, altxa izadazütbürüa
Ala dolütü (damutu) ote zaizü eneki(n) esposatzia?
Ez, ez. Etsizadazü dolütü zureki(n) esposatzea
Ez eta ere dolütüko bizi nizano lürrean.

**Nik banizün maitetto bat mündü ororen isilik
Mündü ororen isilik eta Jinko Jaunari ageririk;
Buket bat igorri ditadazüt lili arraroz eginik,
Lili arraroz eginik eta erdia phozotürrik.**

**Zazpi urtez edüki dizüt gizona hilik kanberan
Egünean lür hotzean eta gaiüz bi besoen artean.
Zitro hurez iküzten nizün astean egün batean
Astean egün batean eta ostirale goizean.**

Kantuak esaten ez duena eta Jaurgain historilariak argitua kontsola ezinezko alarguna berriro ezkondu zela badakigu. Protestanteek XVI. mendean *Testamentu Berria* euskararaitzuli zuten. Itzultzaileen artean zuberotarrak zeuden, baina hamazazpian Lakarriko Buztanobi artzain protestanteak zubereraz eman omen zuen eliza liburu galduta zen. Leizarragak idatzi Abc delakoak darakusan moduan lenengo euskal eskolak protestantenak izan ziren, baina Kontra Erreforma katolikoak bihurtzeko eta Trentoko kontzilioaren ondorean, Zuberoan euskarazko eskola txikiak eraiki zituen, haurrek katoliko dotrina ikas zezaten. Garai hartan lau eliza liburu eman ziren zubereraz, Belapeirek, Maitiak eta Tartasek eginik. Azken honen *Ontsa hiltzeko bidea* ezaguna da, baina euskara askoz hobea zuten beste biek.

Mende horretan abiatu zen hain ezaguna den maitasun kantuen eredua. Batzuek diote zuberotar eredua dela, baina eremu zabalagoan Gipuzkoaraino (Iztueta, Bilintx) aurkitzen da. Amorio erretorika horretan, aspaldian erakutsi genuenez, maitea metaforaz (irudiz), **lorea**, **txoria** edo **izarra** da. Eta noski hiru osagai horien kalitateen arabera eta gaiak eskaturik bat edo beste azpimarratuko da, Urruntasuna (izarra) edertasuna (lorea, izarra, txoria) ihesegitea (txoria), ahultasuna (lorea, txoria) eta abar. Hona zubereraz zaharrenetarik eta ederrenetarik bat maitearen heriotzaz, *Zeruko izarren bidea* da..

Zeruko izarren bidea

**Zelüko izarren bidea
nik baneki
Han niro (nezake) maite pollita
xüxen kausi (aurki) ;
bena gaur hura jagoiti nik
ezin ikusi!**

**Haritx gazte bat naiz aihotzaz
trenkatürrik.
Üdüri zait ene bihotza
kolpatürrik:
Erroak eroriko zaitzola (zaizkiola)
eihartürrik!**

**Ahal balitz ene begia
zerratürrik,
Ene maite gaztearena
argitürrik,
Ezar niro ene odola**

isuririk.

**Zeren baitzen lili ooren
ederrena,
Bai eta ene bihotzeko
maiteena,
Haren izanen da ene azken
Hasperena!**

Hamazortzigarren mendea

XVIII mendea Iparraldean eskolaren eta pedagogiaren kezka denbora da. Lapurdin Joan Etxeberrik Sarakoak euskal eskolaren egitasmoa du. Zuberoan Jusef Egiategik berdin baina eskola elebiduna, eta horretan Mauleko kolejoan saiatu zen. Lau liburu idatzi zituen Egiategik 1785. urtea baino lehen, baina XX. mendean Euskaltzandian argitaratu nuen bat, filosofia liburua «*Lehen libürüa, Filoso heüskaldünaren ekheia*».

Egiategi zuberotarra ideien aldetik oso jakingarria da. Erreformista da. Pedagogoa da. Zoritxarrez bere obran zuberera onari Larramendiren hiztegian hartu terminatxoak erabili zituen haren irakurketa zailtzen dutenak. Batzuetan euskara bakuna eta argia eskapatzen zaio eta hori dugu aipatuko.

Euskara batu baten alde, euskalkien aberastasunak bilduz. «**Zeren eta herri batean galdü dütian hitzak bestean baititü edirenen, hala heüskara bere osoan dagoelarik haren ohoreari emanak direnek, düan hazteriaz sendatürrik, ta sekülan bezain eder agerrarazten baitü.**» (*Lehen Libürüa*, Hitzaorrea (sic). Egiategik, nonbait Larramendiren obran irakurririk bazekien zer kritika egiten zen euskarari eta dio beste hizkuntzak ikasi behar badira ere «**baina beren artean eta etsaien eretzean heüskara garbia dezen mintza da ene egarria**».

Egiategik nahi luke Euskal Herriak bere historia —berak dio Kondaira— ezagun izan dezan eta historiaz dio: «**Ezkribazaleen erregea da Kondairalaria ta Kondaira jakintza güzien giltza. Kondaira da denboraren argia, bizipenaren gidaria. (...) harez da bere ohiturak okerrak züzentzen ta zorigaitzer esküan hedatzen ikasten**» Baina gogoratzen digu eta oraindik balio du aholkuak erdaraz gure historia idazten dabilzanentzat: **Legea ta Kondaira mintzo (hizkuntza) arrotzean, ohore guti gure antzinekoer dereie egiten ezi mintzoa ez dakianari bata ta bestea dirade koloreak itsüari.**

XVIII. mendeko Zuberoaren kritika gogorra egiten du. Doteez hitzegiten duenean batik bat: «**Doteak nahi dütie ezkontzetan handi ta urtzen dirade elürra bezala**». Eta hemen foruaren aipamena ere «**haurrik ezpada ta anderea hiltzen, dotea behar da itzüli: etxalteari behar zati handi bat ebaki, osorik egonen zena, doterik hara ezpaliz sartü**»

«**Jendea itsütü ta aberastarzünaren idürriak dü eskeletü. hantik etxean zatizka erorten, doteak ezteietan janik**» (...) **Zekentazüna delako ezkontzetan sartü. zeren eta banitatea ta ürgüillüa ezteietan Errege ta Erregiña direlako jarri. harrigarri da zonbat erokeriak dütian bürüak itzülipurditü**».

Gerraren (gerlaren) ankertasunaz eskarmentuz mintzo da, alde batetik bera Poloniaren aldeko gerratetan soldado ibilia delako *Bakeaz jardun*: «**Bakea da zerüaren dohaiñ handiena, biziaren argia da. Bakerik eztenean odolez eta nigarrez ihiztatürrik,**

airean heiahora ta dolümen baizik.» *Gerraz jardun*: Eztia ta esnea ügormintzen dirade. Ogia ta bestz aziak zaldiek ta gizonen dütie zankopetan auriskitzen, deusere ez ützen. Süaldien keak dü Ekiaren (eguzkiaren) argia lillurutzen. Galkiro azkarra da, ahalmen orotarik, polbora infernalaren zapartak hiriak ondekitarano (hondoraino) inarrostean. Elizak eta jauregiak lapurtzen, erratzen. Jendea bilusgorri, ihon bazkarik, ihon aterberik. haurrak aita ama gaberik marrakaz neketürük ta gosez hilik» (*Soldado edo gudarietaz*, argitaragabea).

Halarik ere badaki gerra nekez ekiditen dela eta esaera hau ematen digu

**Gerlarik ez jagoitik
ezpada bakearengatik.**

*Erljio tolerantzia*z jardun: Egiategik 1785.a baino lehen erlijio jasapenaren alde idazten hasi zen, alegia Jainkoak nahi duelako, daudela erlijioak ugari, indarra ez dela jendeen biltzeko erabili behar: «**Dezan nork berak jarraik zerüak eman dereion bürübidea ezi hau da gizonaren eginbidean adra (arau) xüxenena ta halako da Apostoliren irakastaldia. Kanon ukaldiz paradüsiko bortak (ateak) eztirade porrokatzen, ez etare jendea bortxaz sareraziten**». (*Erreljioneaz* kapitulua, argitaragabea).

Bakean utzi behar dira beste kristauak. «**Dezagün arren Judioa, Kalbinista, Lutheriana üt beren sinestetan katolikak bezain kiristiak dirade bi azkenak; halako Jinkoak nahi ezpalütü, hitz bakotx nahi bezala lütüzke**. (ibidem). Adibide eta eredu bezala Prusia ematen du Egiategik, han egona baita, denbora berean frantses protestante iheslariak aipatuz: «**Prusiako erresuman bada erreljione güzietarik ta heen artean ez aharra (gatazka) bakoitzik. Kalbinista frantsesak (...) Alemanak ta Prusianak bezain mantso daude bakean, hiru Johane Lili (flordelis) beti bihotzean dütiela hilarte, diolarik**». (ibidem)

Hain zuzen protestante horiengatik, Luis XIV Frantziako erregearen aurkako kritika zorrotza egiten du nola Jesuitek bultzaturik Nanteseke erlijio bakea hautsi zuen eta Frantzia elitearen zati handia galdu: «**Luis XIV bere konfessoreaz enganatürük Nanteseke Edikta errebokatzera atrebitü zen ta Jesuiten amorioarengatik bere poterearen galtzera herena; zilegi etzaikü Jinkoaren erabakietan so egitea bena zirelako Jesuitak lür güziaz hügüntürük (gorrotaturik) dirade orai Judioak bezala lür güzian herratürük**». (ibidem)

Erljioneak gerra aitzaki direla maiz errepikatzen du:

«**Sinets arren ez dezagün erreljionearengatik printzeak beti diradeala gudatzen ta Jinko Honak ez dakiala zertakoz diradean ari; ta haren baimenarekin baizik obra ez lirokiela hongirik ezetare gaitzik**». (*Erreljioneaz* kapitulua, argitaragabea)

Egiategiren obra Larramendismoengatik nahiz zaila izan irakurtzen, soldado eta irakasle izan zen baten eskarmentuak kontatzen dizkigulako, garai hartako eta Euskal Herriko, euskaraz lekuko bakarra daukagu eta hizkuntza eredu gabe bere Zuberoa zokotik Euskal Herri guztiari zuzendu nahi izan zena.

XIX. mendean

Bizpalau eliza liburu berri egiten dira, beste zahar bat edo beste argitaratzen, *Artxu* inspektoreak, eskola elebidunerako *Gramatika* eta *Lafontainen alegia* bilduma euskaraz ematen baina herri literaturak du eman idazle eta bertsolari ospetsuena, *Barkoixeko Etxahun*, satiran oso trebea izan dena. Galdu zen protestantismoak kutsatua edo bera eta beste batzuk antiklerikal agertu ziren, baina satira finenak erotikaren ingurukoak dira. Hona Jon Etxaidek euskara batuan jarri zituen satirak.

Bi ahizpak

**Kattalina entzun dinat kale bazterretan
Maitea didanala kendu nahi benetan;
Harekin berriketak gaurgero utz itzan
Bizkarra berotzea nahi ez badun bertan;**

**Maidar ez naun ibiltzen inoren ondoan,
Baina honontz badatoz, ezin ihesi joan;
Uste badun hireak ditudala alboan,
Ez diezaienean utz ibiltzen kanpoan.**

**Oi Ahizpa faltsua, hi haiz lotsagarri,
Neure zopa onak hi beti jaten ari!
Sortu hintzen arkume izateko ardi,
Baina beldur naun egin haizala ahari.**

Maria Solt eta Kastero (Jon Etxaidek batuan)

**Maria Solt eta Kastero
Bi amorante zahar bero;
Hirurogei hamarna urteetan daude amorioz ero!
Honetan Kasterok Maria utzi, zeloek hartuta gero.**

**Maria Solt doa negarrez
Izorra ote den beldurrez,
Barnetxebordako andereak kontsolatu du esanez
Emazteki zaharrik ez dela «katigu» aurkitzen errez.**

**Maria Soltek hitz zuhurrez
Oroitu Santa Elisabetez;
Katigu gelditu baitzen hura santu zahar baten bidez
Kastero're baldin bada santu, beldur naiz hala izatez.**

**Kastero saindutzat ez euki,
Sobera baita biraoti;
Elizarako atera eta, tabernan du egontoki
Ai! Kastero denagatik santu, Maria Solt ez egon larri.**

Bi ama alaba (Jon Etxaiden egokitzapena)

Barkoxen badira
Bi ama alaba
Elkarrekin badute beti zer esana
Haiek pentsatu gabe hurbiltzen da hara,
Etxahun xaharra
Jainkoaren haurra.

Alaba amari
zen esaten ari:
Jendea jarduten zait beti burlaz eni
Esaten baidirate «*tun paire qu'ei tun pairun*»
Zer ote da hori,
Zer ote da hori?

Zer dion alaba
Hori dun iraina!
Hitaz haurdun nintzela hil zunan senarra
Hamar hilabetetan, hi etorri haurra,
Harek egin obra
Hiru hortz ta dana!

Hamar hilabetez
Jaio naizenez,
Hura ez nuela aita, orain naiz beldurrez
Aiei! zer pena dudan etsitu beharrez
Aita ezagutzez,
Aita ezagutzez.

Hire Aitajauna
Bai gizon jatorra!
Harekin aurrez aurre jan dinat maiz zopa;
Geroztik haren beldur, ez nekien nola,
Zaindu neure gona
Zaindu neure gona.

Igaran San Bladiz (J. Etxaideren egokitzapena)

Igaro San Blasetan, Ospitaldarrekin
Hiru sos doidoi neuzkan orduan nirekin,
Berriz gertatzen banaiz holako jendeekin
Basoa bete gabe, ezetz besoakin!

Eihartze Gainera heldu nintzelarik,
Zuzen ibiltzen, jaunak, lanak nituen nik;
Ezker eskuin balantz bide jabe eginik
Ez nintzela helduko nengoen etsirik.

Etxera nintzenean Añari hotsegin
Atea zabaltzeko barrura sar nendin,
Gorputza urez daukat, beldur naiz hil nadin,

Kofesatu nahi nuke apaiz jaunarekin.

**Lehia handi batekin Añak Añetari
«Lele» hemen diñagu hilurrean larri.
Oheko gurutzeta behar dun ekarri
Ziña dezagun eta jaunarekin jarri.**

**Añetak erantzuna Añari txit fiña
«Lelle» oraindik eztun hilgo halajaina!
Zotz txulotik ikusi din Ama Birjina,
Jainkoaren odolez dezagun baziña.**

Usapala (J. Etxaideren aldaeran)

Etxeko neskameaz maitemindu eta haur bat egin zion Etxahunek, baina neska behartsua zen eta gurasoek andregai aberatsa aukeratu zioten. Etxahunek hiru etxaldean jabetasunaren ez galtzeko otsein amorantea baztertu zuen.

**Etx: Usapal bat badugu herrian tristerik
Negarrez ari zaigu kaiola barrutik,
Bere lagun maiteak baitu utzi bakarrik
Zuen kontsolapenez badauka beharrik.**

**Neska Oi neure izatea nahigabez beterik!
Munduan ez da inor ni bezain tristerik
Ni bezala maiteak traizioz saldürik!
Hoa! Amodioa, urrun enegandik.**

**Etx: Zure esanez dizut traizioa egin;
Elkarrekin genuen gu biok atsegin.
Neure bihotza dago zugana maitemin
Etxekoen beldurrez hautsi dut zurekin.**

**Neska: Oi! Zer traidorea horrela mintzatzen!
Hitz faltsuak esanaz ez zara asetzen?
Ene makaltasunaz zara baliatzen:
Hor erakusten duzu nongo seme zaren.**

**Etx: Maitea nahi zintuzket ahopez mintzatu,
Arrazoiak emanaz zuri esplikatu;
Nik bihotz guztiz zaitut osoki maitatu;
Zu utzi beharrez daukat heriotza gertu.**

**Neska: Hilobi bat nahi nuke lurpean ezarri,
Ene gorputz tristea gorde munduari,
Nire etsaiak oro daitezen liberti!
Akort izango zara haiekin zerorri.**

Hogeigarren mendea

Zuberoak idazle asko eman ditu hogeigarren mendean antzerki edo pastoral egile *Salaberri* Ozazekoa, *Etxahun* Irurikoa, *Hegiaphal* Sohütakoa, *Casenave* Santa

Grazikoa, *Davant* Larrebilekoa, *Berzaitz* Muskildikoa, *Bedaxagar* Urdiñarbekoa, *Agergarai* Muskildikoa, *Queheille* Barkoixeko. Denetara hogeita hamar bat antzerki.

Mendeko 20-30. urteetan lauzpabost bertsolari zeuden Zuberoan, Batista Larraine *Salakoa*, Frantxoa eta Luis Larraine *Ligetxekoak*, Allande *Dordorruga* Ligikoa, eta *Etxahun* Irurikoa. Hoberena Luis Ligetxekoa zen, baina hura gazterik hil, Allande Parisera joan, Frantxoak erabaki anaia hilez geroz uztea, eta bertsolaritza — zuberotarrek diote koblaka— galdu zen. Egia da bertsolaritzaren lekuan Zuberoan pastoralak daukela.

Noski bertsopaper eta kantuegile asko daukagu: Bedaxagar Urdiñarben, Behocaray Sorhütakoa, Berzaitz Muskildin, Bordachar Arrokiaga, Etxekopar Attuli Barkoixen, Davant Ürrüstoin, Mixel Etxekopar, Gotainen, Etxahun Irurin, Niko Etxart Parisen eta Altzain, Roger Idiart Zalgizen egona, Pipas Larrandaburu Atharratzen, Jon Mirande Parisen, Rousseu Eskiulan eta Angelun. Nolanahi guztien arrakasta dator entzuteko emanaldiak direlako eta euskaldunek ez dakitelako Zuberoan euskaraz irakurtzen.

Mendearen lehen erdian ipuin idazle parrasta izan zen. Askotan aldizkarietan pikareskaz idazten zuten. Gerra ondoren pastoralatik kanpo ausartu diren zuberotarrak gutiago dira, baina denak gutxi edo asko abertzaletsasunak ukituak Jon Mirande (4 liburu), Junes Casenave (18 liburu), Jean Louis Davant (10 liburu) eta Txomin Peillen (21 liburu) Denek euskara batuan edo gipuzkeraz ere idatzi dute.

Jon Mirande Aipasorho (1925-1972)

Parisen jaio, Parisen hil eta hiri horretan beti bizitua. Etxean eta buruan zeukan Euskal Herria. Haren obrak —eleberria izan ezik— bere burua hil ondoren argitaratu ziren osorik, poema bilduma, ipuin bilduma, eta saiakera bilduma.

Idazle horren lanek, 1948 tik 1953. ko saiakeretan, orduko Euskal Herri demokristaua inarrosi zuten, E.A.J. ren lehenbiziko kritika izan zelako eta borroka armatuaren aldeko. Haren eskuin muturreko politika ideiek ez zuten herrian oihartzunik eduki. Haren ekarpen onena literaturan izan zen eta horretarako ideiak garbi zituen Loustau-Daudine jaunari 1948.an idatzitako eskutitz batean, 1948.an idatzi egitasmo ederra:

«Nik neure herria maite dut Angles edo frantses batek berea maite duen bezala. Euskal Herriko dantza ta abesti herrikoiak laket zaizkit, noski; eusko edestia ikasten noski; eusko edestia ikasten ari naiz, baina geroari beha bizi behar genukela deritzait. Nire ametsa hauxe da: egun batez, Euskadi izan dadien ludiko (munduko) herrialde argituenetarik bat, Ipar Europako erresuma ttiki zenbait diren bezala (gogoan ditut Holanda, Dinamarka, Finlandia..)» (Tx.Peillen Euskaltzaindirako sarrera hitzaldia, Baiona 1989)

Literatura ta folklorea saiakeran berdin dio eta kezkatu gaineratzen:

«Egiaz abertzale artean, azken urteotan euskaldun kultura asko aipatzen da. Baina zer diogu horrekin? Beldur naiz anitzentzat euskaldun-folklore erran nahi duela» (...) aitortu behar dut euskaraz eta euskaldunentzat egiazko kultura baten alde obratu dutenek mende erdiz gaizki zuzendu zituztela beren aleginak, jakitate guttiagatik, ideologia alderdikierengatik eta abar, problema nagusi asko aterabide gabe gelditu baitira, hala nola euskara idatziaren batasuna.»1961.an idatzia (Tx. Peillen *Jon Miranderen idazlan hautatuak*, Gero Bilbao 1976, 42-43.or.)

Mirandek idazleen artean eragin handia eduki zuen. Gabriel Arestik idatzi zidan gure paristar zuberotarraren euskarazko lanak irakurri ez balitu ez zuela sekulan euskaraz idatziko. Jon Mirande izan zen eskandaluaren erdian, apez moralistak (Chabagno, Lafitte, Mokorroa) aurka, gai berriak euskaraz erabili zituenak.

Izan ere, erotika, polizia ipuin, humore beltz, pagano olerkiekin euskal literatura modernitatean sarrarazi zuen idazlea zuberotar seme hori izan zen eta ez geroko beste inor. Lan batzuk Buenos Aireseko *Gernikan*, Caracasko *Euzko-Gogoan* eta *Eganen* argitaratu zituen. Halarik ere Euskal Herriko *idazle madarikatu bakarra* izan da: bere olerki bilduma eta saiakera bilduma hil eta gero argitaratu baitziren. Hona, euskal literatura, katoliko dotrinaren alaba zenean, gizon etsitu horren olerki bat 1948.an gipuzkeraz idatzia

Sonetu

**Aspertuaz urturik txo! neure biotza
Bizi ontako neke ta negarrak aztu.
Eriotz samurrak danak eramango ditu
Oetzat izango det biar buztin otza.**

**Gizonak, zuen artean, nenbillen arrotza.
Maitatu nituenak ez naute maitatu,
Adixide onenak egon dira mutu,
Alperretan diet egin zeruei otoitza**

**Ez abesti latiñik, ur deunik, ez apaiz!
Ez garbairik, anaiak, naizenean ilko!
Anaiaren garbaia gezurra baita maiz.**

**Lurraren magalean sartu aizeneko
Poztu, neure gorputza! Bertan egongo aiz
Naiz udara, naiz negu, bakean betiko.**

Pagano aitorten hau Miranderen lan ikonoklasta zen baina Kristoren aurka idatzi olerkia ere hauskura handiagoa izan zen. Ez da olerki hartan antiklerikalismorik, kristautasunaren arbuiatze hutsa da. Pentsa Euskal Herri itxuraz hain kristau zen garaian zelango moztura izan zen gero erotikarekin beste hainbeste, lesbianak, pederastak, prostitutak, mozkorrak, hiltzaileak, alegia lehen aldiko antiheroiak euskal literatura santuan sartu zituenean.

Garai berean eta hau ere 1932.an Parisen jaio zuberotarra, *Txomin Peillenek*, 1950.an euskaraz lehen urratsak eman zituen, batik bat haurrentzat ipuinak idatziz (*Euzko-Gogoa*, *Elgar*, *Egan*) Gero bost ipuin bilduma, bost eleberri eta hamaika saiakera emango ditu. Olerki gehienak ez ditu argitaratu. Hona bat —gero Arestik bere *Nire aitaren etxean* eredu erabiliko duen— Xen Huo Xangen txinar ipuina Txominek gipuzkerazko bertsoan jarria, Buenos Aireseko *Gernikan* huts askorekin argitaratua:

Txinar gudari

**Atzeman augunean
Izkilluak eskuetan,
Borrokari gogor
Eiza bezain gotor,
Geuk eskaini diagu aterpea.
Ik aukeratu eriotzea,
Gure ostatua ukatuz,
Nausiari leial egonduz.**

**Iztezañak moztu dizkiagu
Besoak altxatuz
Ik diguk erantzun
Besoak autsi bear izan dizkiagu
Oiuz ire nagusia
Oiuz deitzen bai uen,
Agoa dikagu erdibitu,
Aurpegi guztia urratu.**

**Ez uen beldurti begia
So egiten igunean;
Sinesten uala nagusiagan
Esaten huen hire soan.
Belaunik'adi
Motz dezaiagun lepoa!
Lagunak egin otoitza
Xen Huo Xang-i !
Lur ontara itzultzean
Aintza dezaiogun eman
Berriro sortuz errian**

(Parisen 1952.an Gernika 19.zbk., Buenos Aires, 1952)

Junes Casenave Harigile.

Zuberoako Santa Grazin 1924.ean jaioa Letra ikasketak eginik. Teologia Palestinan ikasia. Betharrameko erlijiosoa. Donapaleun hamazazpi urtez, kolejio zuzendari egona. Hamabost urteez Zuberoan AEKko irakasle. Orain Zuberoako Ibarezkerreko erretoa. Zubereraz eta euskara batuan hemeretzi liburu idatzirik, eleberri, antzerki, pastoralara, olerki, ipuin, hiztegiaketa saiakera. Hamar liburuz goiti, lotan.

Hona Santa Grazi pastoralatik euskara batuan egileak eman zubererazko testuaren itzulpena. Ohitura zaharra jarraituz zortzi silabatako laukoan eman ehiztarien arteko elkarrizketa.

Eiherabarren ehiztaria.

Behingoz bazter utzirik
Ehüjarre eta Arphidia,
Hartü diagu aldi honetan
Urdaiteko ehiztokia.

Ehiztariak binaka
Eutsi dituzte puntuak,
Ez daitezen gora atera
Amildegietatik basahuntzak.

Bi Ihizkundizeko
Axurterriko lekuan
Bi Ihizkundizeko
Olhapeko igarogunean.

Beste bi oraino
Mürrübeltzeko gunean
Eta bi onenetako
Larregorriko Xarean.

Orobat lau ehiza txakurrekin
Uxatzaileak amildegi hondoan
Binaka ezker-eskuinetan
Urdaite lepo gainean.

Hala ere ahalegin
Horik guziak egin arren
Aisa aldegiten dizuete
Basahuntzek han gaisetik.

Ehizarik gabe sartu zarete,
Zuen armak bizkarrean
Isilik zarata guttirekin
Ttatit (lotsaz) ostatuan.

Xahakotarrak (santagraztarrak) zarete
Beti abokatu onak
Eta zuen berriketan
Egitetan baino hobeak.

Geuk gaituk geuretan
Behar den bezala nagusi;
Beharbada ahobero
(baina) hi guretzat ahogorri.

Ez zaiguk atsegin
Hizketa txar horik entzutea
Izan nahi diagu
Ikusleek ongi preziatuak.

Zango arin, buru arin,
Hizketari eder ere bai;
Utz beren akats haundiak,

Otoi, santagaraztarrei berei.

Espantuak haundi dizkiagu
Gu guztiok hemen barna!
Hoa! heuk hobe duk
Ezkaratzean ikustera.

Bi basahuntz gizen dituk
Pollitenetakoak hilak:
Eiharabarrenek urrutitik
Zuzenki tirokatuak.

(*Santa Grazi pastoralala*, Jakin Oinati, 1976 101-106.or.).

Orriako naba (olerki epikoaren sarrera)

Ibañeta, zer dabila hire lepoa gaintik?
Oihü eta intziri handi heltzen Iruñeatik;
Karlesek dütü haresiak jauzarazi errotik
Ibañeta, Ibañeta, hire lepoa gaintik!

Ibañeta, zer dabila hire lepoa gaintik?
Haur, gizonak, emazteak hartzen baserrietarik;
Etxeetan egon direnak gaizki erabilirik:
Ibañeta, Ibañeta hire lepoa gaintik!

Ibañeta zer dabila hire lepoa gaintik?
Frankoen armadak oso üztak dütü eramanik;
Kabale ta ontarzünak ez dütüa hartürik?
Ibañeta, Ibañeta hire lepoa gaintik!

Ibañeta, zer dabila hire lepoa gaintik?
Eüskal Herriaren arrunt zen jabetü nahirik
Hiltzez, gure izatea betiko zapatürik,
Ibañeta, Ibañeta hire lepoa gaintik!

Ibañeta zer dabila hire lepoa gaintik?
Eüskaldüna da goratü, etsaia (y) apaltürik,
Aripena (Ekintza) beitü heben harek eginik.
Ibañeta, Ibañeta hire lepoa gaintik!

(*Orriako naba*, Maule, Ed. euskaltzain, 1978)

Jean-Louis Davant.

Zuberoako Larrabilen jaioa, 1935.an Agronomian ingenari, Hazparnen irakaslea. Euskaltzain osoa. Ezker kutsuko abertzaletasunaren barruan Ekintza katolikoaren pentsaera ekarri duena. Pastoralaz kanpo olerki bildumak (5) eman ditu, hiru sarituak, eleberri bat *Iparrenen bila* eta aldizkarietan politikazko artikulu asko eta liburua *Aberri eta klase borroka* 1977 an Elkar. Baiona. Belapeire 17.mendeko katiximaren edizio kritikoa Euskaltzaindian. Hona aukeratu dugun haren olerki bat:

Maitasun osoa

**Emakumean dago maitasun hazlea
Orokorra, sakona, besarkazalea
Zerua eta lurra bezain borobila.
Sabelaren askara hazi deitzen gaitu
Han kontzebitzen behin eta zenbat aldiz!**

**Altzo eta beso da ingurazalea
Arraultzea bezala betean osoa
Orbita babeslea, kurba eskainia
Eta biltzen bagaitu, bere sustantzian
Barna txertatzeko eta bihotzaren maldan.
Zure maitasunaren errota errondan
Arrainak itsasoan bezala itzuliz
Gabiltza
Misterio batean errespetu haundiz
Tximuaren aletik irintzen baituzu
Gizona.**

(Itsasoak Iraultzan, Maiatz Baiona, 1986, 101.or.)

Zuberotar eta euskaldun noiz arte

Aspaldian kezkatua nago nola Nafarroako ibar batzuk jendeez eta euskaldunez hustu ziren. Urraul goihena ibarra 3.200 euskaldunetatik 120 bat erdaldunetara jaitsi da. Nahiz euskaldunez inguratua, bakartia, euskara ez da salbatu. Arrazoiak bilatzen ibiliz konturatu nintzen nekazaritzaren aldaketak eta errentagarritasunak eraman zituela Urrauldarrak emigratzera. Herrian ez zen artzantzaz beste lanik. Ameriketara edo Madridera emigratzeko gaztelania ikasi behar zen eta honela euskara utzi zuten, errosarioa desegiten den moduan, lehen joaleek besteak erakarri zituzten. Noski herrixka askotan bezala errepide on bat, eletrizitatea eta batzuetan telefonoa ipini zen, baina halarik ere jendeek ez zuten ez beren hizkuntzan ez eta beren herrian sinesterik eta joan ziren.

Horrelakoa gerta daiteke Zuberoan. Hamazortzigarren mendean 69 herri zeuden, beste horrenbeste abadekin, hemeretzigarrenean 52 eta gaur 44 udaletxe. 1770.an 30.000 biztanle zituen Zuberoa historikoak (orain Donapaleukin dauden herriak kontatuta) gaur 15.500 ditu; ez da Erronkariko, Saraitzuko edo Urrauleko galera bezain handia, baina muga zorrotzean gaude.

Ikusi dugu nola industrian eta eskulangintzan batikbat lanpostuak sortzen dabilzan zuberotarrak; kalitatezko nekazaritza garatzen ari da. Lanpostuen sortzen diruz laguntzeko aspaldiko *Herrikoa* banku kooperatiba daukagu, baina gazteen banakako ekimen mugatuaren urgaizteko Basaburuan *Clej* elkartean taldea sortu zen. Talde horrek ehun bat kide biltzen ditu, bakoitzak urtero, ehun libera (ehun franco) ematen du; gero diru hori gazte baten bati bere lan soila sor dezan laguntzeko. Berdin anderentzat *Clefe* sortu da emakume gazteen ekimenen laguntzeko. Baina herria zahartzen ari da: haurrik ez da nahikoa sortzen.

Euskararen aldetik, erronkariarren garai goibeletan baino hobeki gaude. Eskola publikoan, denbora laburrean, 150 gazte sistema elebidunean sartu dira. Aspaldiko lehen mailako ikastolan 90 bat daude eta Donaixtin 25 bigarren mailan. Asteaz bizpahiru ordu euskaraz hartzen dituzte eskola txikietan publikoan beste 382 gazteek, bigarren maila kolejio, lizeo) publikoan 120 gazteek eta hamar pribatuan. Ez da nahikoa baina ez da desertua. Arazoa da gazte horiek lagun gehienak erdaldun dituztela eta euskararen ofizialtasun ezak ez duela laguntzen, nahiz seinale elebidunak hedatzen ari diren. Erronka handiak baditu Zuberoak. Inork ez daki nora eta nola joango den gure herri hau. Aurreko azti guztiek ez zuten igarri eta horretan ez naiz profeta izan nahi. Bakarrik Belako zaldunen lema hartuz esango nuke

**Atzo hala
Egün hola
Gero etxakin nola.**

Bibliografia laburra.

- Junes CASENAVE HARIGILE *Santa Grazi*, pastorala, Jakin Oñati, 1976
- Junes CASENAVE HARIGILE *Ibañeta*, pastorala Jakin Oñati, 1978
- Junes CASENAVE HARIGILE *Orriako naba*, olerkia, Maule, Ed. euskaltzain- Udoy 1978
- Jean-Louis DAVANT *Makila gorria*, Bertso eta olerkiak. Elkar, Baiona, 1980
- Jean-Louis DAVANT *Denboraren aroak*, olerkia, RM. Azkue saria, Gero Bilbao 1981
- Jean-Louis DAVANT *Nahi Gabe*, olerkia, Xalbador saria 1984, Iruñeko Udal Aurrezki Kutxa, Iruñea, 1985
- Jean-Louis DAVANT *Itsasoak Iraultzan*, olerkiak, Maiatz, Baiona, 1986
- Jean-Louis DAVANT *Ihesi*, olerkia ed. Maiatz Baiona 1990
- Jean Louis DAVANT *Eüskaldünak Iraultzan*, Ozaze, 1993
- Jean-Louis DAVANT *Xiberoko makiak* Ozaze, 2001
- Jean HARITSCHELHAR *Le poète Pierre Topet Etchahoun*, Euskera, Bilbo, 1970
- Jean de JAURGAIN, *Quelques légendes poétiques du Pays de Soule*, Paris 1889
- Jean de JAURGAIN, *La Vasconie* Paris 1898, Laffitte reoprints Marseille, 1979
- Jon MIRANDE AIPASORHO *Haur besoetako* eleberria, Lur Donostia, 1970, Hor Dago, 1983, Erein 1987, eta 1996.
- Jon MIRANDE AIPASORHO *Orhoituz*, olerki gehienak, Andolin Eguzkitzak paratua. Donostia Kriselu 1976
- Jon MIRANDE AIPASORHO *Ene jainko-eidol zaharra lur!* Xabier Olarrak orestatua, Elkar, Donostia, 1984
- Jon MIRANDE AIPASORHO *Jon Miranderen lan kritikoak*, Txema Larreak bilduak, Pamiela, Iruñea, 1985
- Jon MIRANDE AIPASORHO *Jon Miranderen obra osoa*, Hiria arg., Alegia, 2000
- Jon MIRANDE, Tx. PEILLEN *Igela*, Hor Dago, Donostia 1979
- Arnaud d'OIHENART *Proverbes et poésies basques*, par J.B. Orpustan, Ozpegi Baigorri, 1992
- Txomin PEILLEN KARRIKABURU *Animismoa Zuberoan*, AEB Haranburu arg. Donostia, 1985
- Txomin PEILLEN KARRIKABURU. *Allande Elixagarai ligiarraren ixtoriak*, AEB Haranburu arg. Donostia, 1986
- Txomin PEILLEN KARRIKABURU *Zuberoako Itzal-argiak (XV.XVI.XVII. mendeak)* Elkar Baiona-Donostia, 1988
- Txomin PEILLEN KARRIKABURU «Euskaltzaindian sartzea» *Euskera* 34, Bilbao 1989-2 (429-486)
- Txomin PEILLEN KARRIKABURU *Jon Miranderen idazlan hautatuak*, Gero Bilbao, 1976
- Txomin PEILLEN KARRIKABURU *Herri sendagintza eta sendagingoa* Zuberoan. Fundación Barandiaran An. de Eusko Folklore, Donostia 1995-1996 osoa
- Txomin PEILLEN KARRIKABURU «Zuberoaren askapena, 1944» in *Oihenart kuadernoa*, Eusko-ikaskuntza, Donostia, 1997
- Patricio URKIZU SARASUA. *Zuberoako irri teatroa*, Izpegi, Baigorri, 1998
- Taldean : «Zuberoa 2010». euskaraz in *Larrun 43*. Lasarte Oria, 2001.
- Taldean O.D.A.C.E. (Ekonomia elkarlanean eta ekintzaz, garapenerako erakundea) *L'emploi en Soule en 2000*. (Lana Zuberoan 2000.urtean, frantsesez)
- Taldean *La Coustume de Soule* (forua) azken argit. Izpegi, Baigorri, 1993

—Agur Zuberua—

2001eko ekainaren lehenengo egunean Txomin Peillenek bi hitzaldi eman ditu Urretxu-Zumarragan, Jean Mixel Bedaxagar kantari, kantu eta pastoral egilearen eztarri leuna lagun duela. Goizez ikasleentzat, arratsaldez herritarrentzat. Guztia **Biba Xiberua!** elkarteak antolatutako ekitaldien barnean Xiberoko Botza irratia-aren alde.

Zuberoa han dago eta gu hemen. Biak elkarganatzera dator Txomin Peillen. Ikusi du ondo baino hobeto, urteetako ikerlan sakon zehatzez, lurralde hura zer den. Zer hango jende, zer hango lan, zer hango aide. Eta lehenago zer izan zen. Gure mesedetan hartu du luma, hartu du papera, eta arduraz izkiribatu dizkigu argi, txukun, Zuberoaz jakin behar genukeena lehenbailehen. Irakur dezagun, ikas dezagun, guretzat, zuretzat idatzi duena. Ordu da hasteko zuberotarrak direnaz jabetzen. Eta beraien erakutsiz, umorez etorkizuna kantatzen.

BIBA XIBERUA! Elkartea

Txomin Peillen Karrikaburu. 1932.an Parisen jaioa. Hogeita lau urteez biologia eta hamabi urteez euskara irakaslea, Parisen. Euskara katedraduna Baionako fakultatean. Orain irakasle emeritua. Euskaltzain osoa. Hogeita bat liburu euskaraz argitaratuak (haietan hamar ikerketa lan). Hiru liburu frantses erdaran argitaratuak. Liburu bat gaztelaniaz argitaragabea

